

# XEDAPEN OROKORRAK

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## 4294

*2/2013 FORU ARAUA, 2013ko ekainaren 10ekoa, Gipuzkoako bizikleta bideen lurraldearen arloko plana behin betiko onartzeko dena.*

### GIPUZKOAKO DIPUTATU NAGUSIAK

Jakinarazten dut Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartu dutela «2013ko ekainaren 10eko 2/2013 Foru Araua, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana behin betiko onartzekoa»; eta nik aldarrikatu eta argitara dadin agintzen dut, aplikagarria zaien herritar guztiek, partikularrek nahiz agintariek, bete eta betearazi dezaten.

Donostia, 2013ko ekainaren 1a.

Diputatu nagusia,  
MARTÍN GARITANO LARRAÑAGA.

## HITZAURREA

Gizarte aurreratuetan joan-etorriak nabarmen hazi dira azken urteotan, eta hori ikusita, Gipuzkoako Foru Aldundiak, gainerako administrazio eta gizarte eragileekin batera, motorrik gabeko mugikortasunaren alde egin du, oinezko eta bizikleta bidezko mugikortasunaren alde.

Bereziki, bizikleta garrantzi handia eta protagonismoa hartzen ari da egunetik egunera, beste garraiobideen aldean, batez ere herri mailan. Izan ere, garraiobide biguna da, inguramenaren ikuspegitik iraunkorra, energiaren aldetik eraginkorra eta gizarte alorrean osasungarria eta bidezkoa.

Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da bizikletentzako eta oinezkoentzako herriarteko bide sare bat edukitzea, behar bezala planifikatua, eraikia, artatua eta zaindua, Gipuzkoako hirigune nagusiak lotzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, hasiera batean, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen Plana idatzi zuen: lurralde osorako herriarteko sare baten lehen proposamena izan zena, eta gai honi buruzko plangintza integral baterako oinarriak ezarri zituen.

Geroago, 2007ko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzkoak, izaera juridikoa eman dio bizikleta bidearen kontzeptuari, bide azpiegitura mota berrituz hartzen baitu: motorrik gabeko mugikortasuna, batez ere bizikletentzako, garatzeko bide azpiegitura espezifikoa, errepideen araudiak jasotzen zuen ohiko bidearen aldean ezaugarri desberdinak dituena.

2007ko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Arauak 1. artikuluan ezartzen duenez, bere xedea da, besteak beste, foru bizikleta-bideen planifikazioa eta eraikuntza arautzea; eta, hain zuzen ere, horretarako, 19.1 artikuluan aurreikusten du Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana egingo duela. Plana Batzar Nagusiek emandako foru arau baten bidez onartuko da behin betiko, 21.2 artikuluen arabera.

Plan hori Lurraldearen Arloko Plana izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduari buruzko araudiak ezarritakoaren ondorioetarako; eta planean zehaztuko dira: batetik, Foru Bizikleta-bideen Sarearen helburu nagusiak eta bizikleta bideek izan beharreko ezaugarriak; eta bestetik, planean adierazitako helburuak lortzearen, aldi jakin batez egin beharreko jardueren programa.

Arau aurreikuspen horiek betetze aldera, formulatu eta bideratu da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana, 1990eko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzkoak, eta hori garatzeko araudiak xedatutakoari jarraikiz.

Plan horretan proposatzen da Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea egitea, lurralde historikoko Bizikleta Bideen Sare Osoaren ardatza izango dena. Oinarrizko Sareak gutxi gorabehera 439 km izango ditu, eta Gipuzkoako hirigune nagusiak uztartzen ditu. Herrietako eta herriarteko bizikleta bideen azpiegitura multzo bat da, eta bederatzi ardatz nagusi edo ibilbide hauetan banatu da:

- 1.– Donostia - Irun
- 2.– Donostia - Mutriku
- 3.– Donostia - Beasain
- 4.– Debarroa
- 5.– Urola bailara

6.– Bergara - Beasain

7.– Bidasoa bailara

8.– Leitzaran bailara

9.– Ego bailara

Planak lurraldez gaindiko izaera nabarmena du, mugakide diren lurraldeekiko loturak ere aurrei-kusten baititu. Eta izaera egituratzailea ere badu, Gipuzkoako eskualde eta eremu funtzional guztiak zeharkatzen eta lotzen baititu.

Tramitazioari dagokionez, Garapen Iraunkorreko diputatuaren 2010eko maiatzaren 11ko Foru Aginduaz hasierako onarpena eman zitzaion Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planari, eta jendaurreko informazio-aldian jarri zen bi hilabetez; eta aldi berean, entzunaldia eman zitzaion lurralde administrazio publiko interesatu guztiei, alegazioak eta iradokizunak egin zitzaion.

Herritarrek parte hartzeko prozesu luze bat ere egin zen, gardentasuna eta gizarte eragileen inplikazioa sustatzeko. Eta prozesu horretan azpimarratzekoa da Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren parte hartzea eta aholkularitza.

Garapen Iraunkorreko diputatuaren 2011ko maiatzaren 9ko Foru Aginduaz, plana behin-behinean onartu zen, aurkeztutako alegazioen ondorioz egindako aldaketekin. Era berean, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena emateko eskumena duen ingurumeneko organoari bidali zitzaion plana; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeari nahitaezko txostena egin zezan eskatu zitzaion.

Foru Aldundiko Ingurumeneko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak, 2011ko irailaren 14an, ingurumenaren gaineko eraginari buruzko behin betiko txostena egin zuen, aldekoa zena txostenean bertan ezarritako zehaztapenen arabera.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordeak ere, 2011ko urriaren 20an, planaren aldeko txostena egin zuen, betiere txostenean bertan adierazitako oharren arabera, eta URA Uraren Euskal Agentziak emandako zehaztapenak betetzeko baldintzapean.

Azkenik, 2012ko azaroaren 29an, Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluan parte hartzen duten kideei planaren azken dokumentuaren berri eman zitzaion.

Artikulu bakarra.– «Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana» onartzea.

1.– Behin betiko onartzen da «Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana».

2.– Foru arau honen I. eta II. eranskin gisa jaso dira, hurrenez hurren, eta argitaratzeko ondorioetarako: planaren araudia (1. eta 2. kapituluak); eta ingurumen iraunkortasunari buruzko txosteneko prebentzio eta zuzentze neurriak, eta zaintze eta ikuskatze programa (planaren 6. eta 7. kapituluak).

#### AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluari foru arau hau garatu eta gauzatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

#### AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

## I. ERANSKINA

## 1. KAPITULUA

## APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA

1.1.– Legezko aplikazio oinarria.

1.1.1.– Eskumen esparrua.

Gipuzkoako Foru Aldundiak lurralde antolamendurako tresna hau formulatzeko duen eskumena-  
ren iturriak lurralde antolamenduko titulu material eskusiboak dira, hain zuzen ere Konstituzioaren  
148.1.3. artikulua, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko, hots, abenduaren 18ko  
3/1979 Lege Organikoko 10.34. artikulua eta, berariaz, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komun-  
nen eta Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko harremanari buruzko azaroaren 25eko 27/1983  
Legearen 7.a.8. artikulua ezarriak. Osterantzean, foru esparru honetatik bereziki aipatu behar da  
bizikleta azpiegituren gaia bere gain hartu eta arautzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako  
arauaz; honakoa da:

– Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Araua da, urtarrilaren  
24koa. Honek, 19. artikuluan, hurrena dio:

19.1 artikulua.– Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana egingo du,  
honako xede hauek erdiesteko asmotan:

- a) Foru bizikleta bideen sareari dagokionez, helburu nagusiak zehaztea.
- b) Bizikleta bide horiek izan beharko dituzten ezaugarriak zehaztea.
- c) Aldi jakin batez, Planean adierazitako helburuak lortzearren, egin beharreko jarduera progra-  
mak zehaztea.

19.2 artikulua.– «Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana Lurraldeko Arloko Plana izango  
da, Euskadiko lurralde antolamenduari buruzko araudiak ezarritakoaren ondorioetarako».

1.1.2.– GBBLAPEN izaera eta ezaugarriak.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana lurralde antolamendurako tresna da,  
Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak,  
Eusko Legebiltzarrarenak, ezarritakoarekin bat etorritik.

Planak garrantzi berezia duen arlo bat arautzen du, bizikleta bideen arloa zehazki. Eta erre-  
ferentzia esparrua finkatzea du helburu, hain zuzen ere lurralde eta arlo mailan zein hirigintzan  
esku-hartze publikoak izan ditzakeen tituluak sistematizatzena begira.

Lurralde antolamendurako tresna izanik Gipuzkoan, helburu eta irizpide nagusi hauek ditu:

1.– Azpiegitura sare baten bidez Gipuzkoako Lurralde Historikoa egituratzea, hiriarteko motorrik  
gabeko mugikortasuna (HMGM) garatzeko; hots, bizikleta eta oinezkoen zirkulazioa areagotzeko.

2.– HMGM seguru, eroso eta konektibo baterako sarea diseinatzea, bizikletaren garraibide  
gisako erabilera sustatzeko.

3.– Lurralde antolamenduaren arabera diseinatzea eta karakterizatzea aipatu HMGM sarea.

4.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen Planean egindako proposamena behin betiko eguneratu eta egokitzea, lurralde antolaketaren ikuspegitik.

5.– Sare horren trazadura bat etortzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin eta Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak berariaz horretarako prestatutako gomendio tekniko sortarekin.

6.– Bizikleta bidezko komunikazio sistema orokorra osatzea, eta irizpideak finkatzea sarea herrietatik igarotzea ziurtatzeko, hiribarneko eta hiriarteko sareak bereizteko –bai funtzionaltasun bai kudeaketari dagokienez etorkizuneko antolamendura begira–, eta lehendik dauden edo egitea aurreikusten den foru edo udal bizikleta sareekin lotura egokia lortzeko.

7.– Udalerrietako hiri plangintzarekiko koherentzia eta koordinazioa.

8.– Sarearen gaur egungo egoeraren diagnostikoa egitea, egin behar diren jarduerak zehaztea, lehenetasunak ezarri eta kronologikoki programatzea, jardueren haztapen ekonomikoa egitea eta plana gauzatzeko tresnak erabilgarri izatea.

9.– Izango duen ingurumen inpaktua zehaztea, eta ingurumenari dagokionez era egokian txertatzeko eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio Bateratuaren prozedura ondo bideatzeko irizpideak ezartzea.

1.1.3.– Arau esparrua.

Atal honetan, nahitaez aipatu behar da ikuspegi materialetik GBBLAPen arau oinarria osatzen duen lege multzo nagusia: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Araua, urtarrilaren 24koa, eta EAeko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa. Halaber, aintzat hartu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko 6/2005 Foru Arauak, uztailaren 12koak, xedatutakoa, sektoreko araudian plan honetarako zehaztutako foru arau mailako xedapenak onartzeko prozedura ezartzen baitu.

Osterantzean, espresuki aipatu behar da hirigintza legedia, Lurzoruaren Legearen testu bateginean jaso (uztailaren 20ko 2/2008 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua), Lurzoruaren eta Hirigintza Antolamenduaren Legearen testu bateginean jasoak (apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren bidez onartua), eta garapen araudiak ere. EAeren eremuari erreparatuz, berariaz aipatu behar dira Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, eta 11/2008 Legea, azaroaren 28koa, hirigintza ekintzak sortutako gainbalioetan elkarrekin izan behar duen partaidetza aldatzen duena.

Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazio Bateratuaren alorrari dagokionez, esan behar da horren sorburua 9/2006 Legeak egokitutako 2001/42/EE Zuzentaraua dela. Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorrean arlo horretako helburuak, eskumenak eta alderdi orokorrak zehazten dira. Araudi garapena 183/2003 Dekretuaren bidez gauzatu da, baina Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen bidez aldatu egin da.

Horrenbestez, aurreko atalari erreparatuta ondorioztatzen da GBBLAPek Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio prozedura igaro behar duela. Zentzu berean, Lurraldearen Arloko Plan honek bete egingo du itsas eta lehorreko jabari publikoaren erabilerari dagokionez Kostaldeei buruzko Legearen III. Idazpuruan xedatutakoa.

### 1.1.3.1.– Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko Foru Araua.

Lurralde esparru honetan, bereziki aipatu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoak, bere foru organoaren bidez, bizikleta bideei buruzko xedapen espezifikoak bereganatu eta emateko erabilitako araua. Alde horretatik, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak, urtarrilaren 24koak, izaera jakin bat ematen dio bizikleta bide kontzeptuari: bide mota berrizat aurkezten du, eta bide horretarako esparru juridiko espezifiko bat ezartzen. Horregatik, I. idazpuruko 1. kapituluko 19.1 artikuluan, lurralde tresna hori prestatu behar dela zehazten du: «Gipuzkoako Foru Aldundiak Bizikleta Bideen Lurraldeko Plana egingo du, honako xede hauek erdiesteko asmotan:

- a) Foru bizikleta bideen sareari dagokionez, helburu nagusiak zehaztea.
- b) Bizikleta bide horiek izan beharko dituzten ezaugarriak zehaztea.
- c) Aldi jakin batez, Planean adierazitako helburuak lortzearren, egin beharreko jarduera programak zehaztea.»

Gipuzkoako Foru Aldundiak formulatuko du GBBLAP, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde antolamendurako legedian horrelako lurraldearen arloko planetarako aurreikusitakoaren arabera tramitatuko du. Batzar Orokorren foru arau baten bidez etorriko da planaren behin betiko onarpena.

Osterantzean, 82. artikulua Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua eratzea jasotzen du. Bizikletarekin eta bizikleta bultzatzen duen mugikortasunarekin zerikusia duten administrazio, erakunde, gizartearen eta enpresaren esparruko eragile guztiei kontsulta egiteko, aholkuak eskatzeko eta adostasunak erdiesteko eta parte hartzeko organo gisa definitzen du. Hala, organo horrek finkatu egingo ditu, GBBLAPen esparruan garatzen ari den herritarren partaidetzarako planaren barnean, herritarren partaidetzari buruzko 1/2010 Foru Arau berriak, uztailaren 8koak, jasotzen dituen lege aginduak zein Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Euskal Legeak, otsailaren 18koak, ezarritakoa.

### 1.1.3.2.– Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamendua. 4/1990 Legea, maiatzaren 31koa.

1978ko Espainiako Konstituzioaren 148.1.3 artikulua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.34 artikulua ezartzen duten eskumen egituraren arabera eta Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunak eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanari buruzko azaroaren 25eko 27/83 Legearen testua kontuan izanda, Eusko Legebiltzarrak, 1990eko maiatzaren 31n egin zen osoko bilkuran, onartutzat eman zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legea, eta lurzoruaren erabileren erregulazioa garatzeko esparru juridikoari buruzko eskumenak eman zituen. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea ezarri eta zehazteko aurretiazko baldintza zen hori.

EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, hurrena dio zioen adierazpenean: «Lurraldearen antolakuntza kontzeptuaren barruan, lurraldearen eta baliabideen erabilpenik arrazoizkoena lortzeko bidean taiutu eta egiteratu daitezkeen ekintzen multzoa sartzen da...», eta ondoren adierazten du «berezko baliabideak arduraz kudeatzea eta ingurugiroa zaintzea» direla horretarako jarraitu behar diren irizpideak.

Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen osaera garatzeko antolamendu tresnak pixkanaka formulatzeko oinarria ere ezartzen du. Horretarako, erreferentziako hiru figura ezartzen ditu, horien bidez osatzearren antolamendu tresna horien definizio eta erregulazioa eta lurraldeari

eragiten dioten ekintzak koordinatzea bermatzeko beharrezko irizpide eta prozeduren esparru juridikoa. Aipatu tresnak honakoak dira:

1.– Lurralde Antolamendurako Artezpideak.

2.– Lurralde plan partzialak.

3.– Lurraldearen arloko planak.

Ildo honetatik, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak espresuki onartzen du goragoko mailako araudia eta, horrenbestez, planaren zehaztapenak Lurralde Antolamendurako Artezpideetan definitzen den lurralde ereduaren mende daude, baita lurralde plan partzialetan zehaztutako aginduen mende ere. Hala, GBBLAPek onartzen du aipatu bi tresna horien lehentasuna.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak, garatzeko bidean gauzatu behar dituen jardueri dagokienez, bereziki kontuan hartuko du lurraldearen arloko antolamendua babes-teko figurekin izan beharreko koordinazioa. Babes figura horiek honakoak dira: EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana; Hezeguneak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana eta EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana. Horiez gain, EAEko Trenbide Sarearen Lurraldearen Arloko Plana ere kontuan izan beharko da.

1.1.4.– Aplikazio eremua.

Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planak, hasierako ikuskeran unitate espazial eta proposamen funtzional gisa agertzen dela, oso-osorik hartzen du Gipuzkoako Lurralde Historikotik igarotzen den Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea, kontuan hartzeke, baina, nori dagokion kasuan kasuko bizikleta bidearen plangintza, proiektzio, gauzatze eta ustiapenaren eskumena.

Plan honen helburuen esparrua eta esparru materiala erabat bateragarriak dira bide kontzeptuari egun ematen zaion itxuraketa juridikoarekin. Bizikleta bidea komunikazio bide berritza hartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.34. artikuluan, Autonomia Erkidegoko Erakunde Komunuen eta Lurralde Historikoko Foru Organoen arteko harremanari buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8 artikuluan eta Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Arauan bertan jasotzen den moduan. Foru arau horrek, aplikazio eremuari buruz diharduen 3. artikuluan, honakoa adierazten du: «Foru arau hau ezartzeko eremuak foru jabetzako bizikleta bideak izango dira, baldin eta Gipuzkoako Foru Bizikleta Bideen Sarearen Katalogoaren barruan foru jabetzako bizikleta bide sailkapenez azaltzen badira».

1.2.– Gipuzkoako bizikleta bideen lurraldearen arloko plana izapidetzeko prozedura.

Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko Foru Arauak, GBBLAP tramitatzeari eta onartzeari buruz, 21. artikuluan ezartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak egin eta izapidetu behar duela GBBLAP, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolakuntza, Gobernu eta Administrazioari buruzko 6/2005 Foru Arauan, uztailaren 12koan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldearen antolamenduari buruzko legerian lurraldearen arloko planetarako aurreikusitakoarekin bat.

Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen lehenengo xedapen gehigarriak honakoa dio: «Lurraldearekiko Alor Egitamua gaitasunaren jabe diren jardute sailek aurkeztuko eta gertatuko dituzte, ezarri beharreko alor legeetan ezarritako jardunbideari eta, horren ezean, Lurraldearekiko Zati Egitamuetarako lege honetan ezarritakoari jarraiki».

Horrenbestez, Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren kasuan formulatzeko eta prestatzeko eskumena duen organoa Gipuzkoako Foru Aldundia da, eta onartzeko prozedura EAEko

Lurralde Antolakuntzari buruzko Legeak lurraldeko plan partzialak onartzeko zehaztutakoaren berdintsua da.

Bestalde, EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 20. artikuluan zehazten dira lurralde historikoetako foru organoek beren eskumenei jarraiki egindako lurraldearen arloko planak behin betiko onartzeko eta indarrean sartzeko arauak: «Organo horiek behin betiko onartu baino lehen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzako Batzordeak arauzko txostena egin beharko du». Lurraldearen Arloko Planak planteatzen duen aukera ez bada bateragarria indarrean dagoen lurralde antolamenduarekin, eta aukera horri «interes publiko bereziko» irizten bazaio, Eusko Jaur-laritzak onartzen dituen antolamendu tresnetan sartu beharreko behin betiko zuzenketa zehatzei jarraitu beharko zaie.

Horrez gainera, EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 17. artikuluan zehazten da ezen, lurraldearen arloko planak LAA eta LPPk zehaztutako lurralde esparruan ongi txertatzen direla bermatzeko, plana egiteko ardura duen administrazioak galdera egingo diola, aurrez, Eusko Jaur-laritzaren Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurumen Sailari, arloko planaren helburu diren obrak, jarduerak edo zerbitzuak kokatzeko indarrean dagoen lurralde antolamenduak ematen dituen alternatiba, irtenbide eta aukerei buruz.

GBBLAPen behin betiko onarpenaren akordioa foru araua izango da, hain zuzen ere Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko urtarrilaren 24ko 1/2007 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatzen denari eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolakuntza, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauan izapidetzeko prozedurari buruz zehazten denari jarraiki; eta foru arau hori EHAAn eta GAOOn argitaratuko da.

Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legeak egokitutako 2001/42/EE Zuzentarauari jarriki, Lurraldearen Arloko Plan honek ingurumen inpaktuaren ebaluazioari dagozkion eskakizunak bete behar ditu. Era berean lotesleak izango dira, zuzenean, EAEko Ingurumena Babesteko 3/1998 Lege Orokorrean xedatutako aginduak nahiz 183/2003 Dekretuan hura garatzeko jasotako edukia.

### 1.3.– Jabetzaren mugak.

Jabetzari mugak ezarri behar baldin bazaizkio bizikleta azpiegitura behar bezala erabiltzeko eta azpiegitura bera babesteko, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak, urtarrilaren 24koak, xedatzen duenaren arabera jokatu da.

GBBFaren 6. artikulua arabera, jabari publikoko eremuak izango dira foru bizikleta bideek eta haietako elementu funtzionalek hartzen dituzten lurrak, eta hauekin batera titulartasun publikoko azpiegituraren alboko lurraren zerrenda, metro bete zabalekoa. Desjabetzeko legitimazioari dagokionez, GBBFaren 29. artikulua xedatzen du bizikleta bideen proiektuak onartzeak obrak herri onurakotzat jotzea ekarriko duela, eta zortasunak jartzea edo egokitzea.

### 1.4.– Indarrean dagoen plangintzaren gaineko ondorioak.

EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 22. artikulua adierazten du ezen, beren ezaugarriak direla-eta udalaren eremu edo interesa gaintu eta maila goreneko antolamendu tresnek zehaztutako lurralde esparruan behar bezala txertatuta dauden lurraldearen arloko planek lotetsi egingo dituztela lurzoruaren erregimenari buruzko araudiak ezartzen dituen hirigintza planak. Beraz, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planeko zehaztapenek lotu egingo dituzte bizikleta azpiegiturak eragiten dioten hirigintza plangintza; hala, plangintza horiek bizikleta azpiegiturak egokitu beharko dute, berrikuste edo aldatze prozesua garatzen denean.



Horri jarraiki, GBBLApek jasotzen dituen bizikleta azpiegitura potentzialek eragiten dieten udal-errien kasuan, udalerriek berek hartuko dute bere gain plangintzaren etorkizuneko antolamendua, hain zuzen ere bat etorri, era berean, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak, urtarrilaren 24koak, xedatzen duenarekin, eta bizikleta erabileren erregimena onartuzat joz.

EAEko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz, plan honetan jasotako zehaztapenek lehentasuna izango dute, plana argitaratzen den unetik beretik, GBBLApera formalki egokitu diren edo egokitu ez diren udalerrietako hirigintza plan eta araudien aurretik.

## 2. KAPITULUA

### GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN ZEHAZTAPENAK

#### I. TITULUA

##### XEDAPEN OROKORRAK

###### 1. artikulua.– Definizioak.

1.– Bizikleta bidea: herri jabariko bidea, bizikletak ibiltzeko proiektatu eta eraiki dena edo berariaz horretarako egokitu dena, dagozkion seinale horizontalak eta bertikalak dituena, eta ibilgailu horiek segurtasunez ibiltzeko adinako zabalera duena.

2.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sare Osoa: Gipuzkoako bizikleta bideen sare osoak lurralde historikoan eraikita dauden eta eraikiko diren bizikleta bide guztiak hartzen ditu, betiere Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak 2.1 artikuluan ematen duen definizioa betetzen badute. Beraz, sare osoaren osagaiak Oinarrizko Sarea (BBOS) -honek, bere aldetik, foru tartearak (GBBOFS) eta udal tartearak (GBBOUS) ditu-, eta oinarrizko sarekoak ez diren beste udal sare guztiak dira.

3.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea (GBBOFS): Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea Gipuzkoako Lurralde Historikoan zeharreko bizikleta azpiegituren multzoa da. Azpiegitura horiek hiriartekoak dira batez ere, eta bizikleta erabiltzeko eskaria sortzen duten gune nagusiak lotzen dituzte, lehentasuna emanaz, betiere, dagoeneko badiren beste bizikleta sare batzuekiko loturari. Bizikleta azpiegitura horiek horrelakotzat izendatuta egon behar dute GFaren foru dekretuaren indarrez, eta arlo honetan eskumena duen foru organoak proposaturik Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarearen Katalogoan sartuta.

4.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarea (GBBOUS): Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarea osatzen dutenak udal titulartasunekoak eta bereziki hiribarnekoak diren bizikleta bideak dira, udalbarrutian zeharrekoak eta Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea osatzeko helburua dutenak.

5.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea: Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen osagaiak Oinarrizko Foru Sarea eta Oinarrizko Udal Sarea izango dira, eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sare Osoaren bizkarrezurra izango da gainera. Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarea 439 km luze da, eta elkarrekin lotzen ditu lurralde historikoko hiri ingurune nagusiak. Hiribarneko, hiri inguruko eta hiriarteko bizikleta azpiegituren multzoak osatzen du, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoa zeharkatzen duten bederatzi ardatz nagusi ditu. Lurraldez gain-

diko izaera nabarmena du halaber, inguruko lurraldeekiko loturak ere aurreikusten baititu. Eta Gipuzkoako eskualde guztiak zeharkatzen ditu, bederatzi ibilbide ditu eta horretarako, honakoak:

- 1.– Donostia - Irun
- 2.– Donostia - Mutriku
- 3.– Donostia - Beasain
- 4.– Debarroa
- 5.– Urola bailara
- 6.– Bergara - Beasain
- 7.– Bidaso bailara
- 8.– Leitzaran bailara
- 9.– Ego bailara

Gipuzkoako bizikleta bideen sare kontzeptua, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak, urtarrilaren 24koak, jaso, lurraldearen arloko plan honek jasotzen duen Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sare kontzeptuarekin pareka daiteke ondorio guztietarako.

2. artikulua.– Jabetza eskualdatzea.

Jabetza eskualdatzeari dagokion orotarako, bete egingo da Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak, urtarrilaren 24koak, 11. artikuluan xedatutakoa.

3. artikulua.– Bizikleta bide motak.

1.– Plataformak ibilgailu motordunekiko eta oinezkoekiko duen egitura aintzat harturik eta garraio modu horiekiko bereizte maila gogoan, GBBLAP honetako bizikleta bideak ondoko azpiegitura banaketaren arabera sailkatuko dira:

1) Bizikleta bidezidorra: oinezkoak eta bizikletak ibiltzeko bidea da, kale eta errepideetatik bereiztuta dagoena, edo trenbideko plataforma abandonatuetan, lehendik dauden bideetan edo zabalgunen sortu berrietan egiten dena.

2) Bizikleta espaloia: oinezkoentzako espaloien espazioan ezarritako bizikleta bidea da. Bizikleten trafikoarekin batera oinezkoen zirkulazioa ezar daiteke, bi modu horietarako seinaleak jarrita; era berean, bizikleten zirkulazioa oinezkoen zirkulaziotik bereiztuta egon daiteke, seinaleen, zoladuran egindako marren edo fisikoki bereizteko beste edozein elementuren bidez. Noranzko bakarreako edo noranzko bikoa izan daiteke.

3) Bizikleta pista: galtzadaren edo errepidearen eta espaloiaaren paraleloan doan bizikleta bidea da, trazadura eta plataforma independente dituen, ibilgailu motordunen trafikotik bereiztua. Noranzko bakarreako edo noranzko bikoa izan daiteke.

4) Bizikleta errei babestua: galtzadaren zati bat hartzen duen bizikleta bidea da, galtzadatik eta ibilgailu motordunen trafikotik bideko marren bidez, mutiloien edo bereizteko edota babesteko beste elementu batzuen bidez fisikoki bereiztuta dagoena. Noranzko bakarreako edo noranzko bikoa izan daiteke.

5) Bizikleta erreia: galtzadaren zati bat hartzen duen bizikleta bidea da, galtzadatik eta ibilgailu motordunen trafikotik bereiztuta dagoena, baina ez fisikoki segregatuta, eta zirkulazioaren noranzko bera duena.

6) Bizikleta bazterbidea: errepideko bazterbidea hartzen duen bizikleta bidea da, zirkulazioaren noranzkoa duena eta fisikoki segregatuta ez badago ere, bideko marren bidez, kolore eta egitura-ren bidez, malda-gainalde txikien edo beste metodo batzuen bidez bereiztuta dagoena.

4. artikulua.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren aplikazio eremua

1.– GBBLAP honen aplikazio eremua Gipuzkoako Lurralde Historikoan barrena doan Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea da, hau oso-osorik harturik kontuan.

2.– Ikuspuntu funtzionaletik, oinarrizko bederatzi ibilbideek osatzen duten Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareak HMGMrako trazadura segurua, eroso eta konektiboa izatea bermatu behar du plan honek. Osterantzean, interes orokorrekoak diren eta herritarrekiko ezaugarri funtzionalak antolatzeke gutxieneke baldintza funtzional batzuk betetzen dituzten bizikleta bide guztiak izen komun bakar baten pean biltzeko, «Gipuzkoako Bidegorriak» izen eta marka erregistratua aplikatuko da, betiere arloko araudiak zehazten dituen baldintzak betez horretarako. Era berean, aipatu marka lortzera begira, gutxieneke zenbait ingurumen irizpide aintzat hartu beharko dira bidea eraiki eta ustiatzerakoan.

3.– Gipuzkoako Foru Aldundiak udalerrietako sarrera eta irteera lekuak ezarri ahal izango ditu, Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen konektagarritasuna bermatzeko. Gainera, egokitzat jotzen diren udal sareetarako ibilbideak proposatu ahal izango ditu, nahiz beste gauza batzuk adostu ahal izango diren dagozkien toki administrazioei kontsulta egin ostean.

4.– Azpiegituren ikuspegitik GBBOFSek jaso egingo ditu foru sarea egiteko jarduketa guztiak, lehendik dagoen sarea egokitzeko, kontserbatzeko, hobetzeko eta zabaltzeko jarduerekin batera.

5.– Titularitatearen ikuspegitik, sareen bi kategoria daude: Oinarrizko Foru Sarea eta Oinarrizko Udal Sarea. GBBLAP soilik foru titularitatekoak diren tarte, adar eta elementu funtzionaletara mugatzen da.

5. artikulua.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren helburua eta izaera

1.– GBBLAP lurralde antolamenduko tresna bat izango da, eta bizikleta azpiegituren arloko lurralde mailako ekintza guztiak Gipuzkoan egoki txertatzea izango du helburu; horretaz gain, bermatu egingo du lurraldeko, hirigintzako eta sektore guztietako esku-hartze publikoen arteko koordinazioa.

2.– Era berean, GBBLAPen helburu diren jarduerak, lurraldea egituratzen eta antolatzen duen elementu batekin lotuta dauden heinean, lurralde izaera nabarmena izango dute, baita udalez gaindiko irismena ere.

3.– GBBLAP honen helburuak dira, halaber, Oinarrizko Sarerako helburu orokorrak zehaztea, sare hori osatzen duten bideek izan behar dituzten ezaugarriak finkatzea eta, azkenik, Oinarrizko Foru Sarean denbora jakin batez gauzatu beharreko jarduera programak ezartzea, planean zehaztutako helburuak bete daitezen. Beraz, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Plana lurraldeko elementu erregulatzaila izango da, eta udalez gaindiko oihartzuna izango du.

## II. TITULUA

## EDUKIA, ONDORIOAK ETA IRISMENA

## 6. artikulua.– Edukia eta arau irismena

## 1.– LAP honek dokumentu hauek ditu:

- A. Memoria
- B. Araudia
- C. Antolamendu planoak
- D. Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena
- E. Plangintzaren gaineko eraginak
- F. Herritarren parte hartzea
- G. Laburpena

2.– LAP honen arau edukia osagai dituen dokumentuen multzoak osatzen du. Egia da, baina, «B. Araudia» eta «C. Antolamendu planoak» dokumentuak direla arau izaera hori berariaz esleituta dutenak, lotespen zuzen mailaz gainera. Horrez gain, Ingurumen Iraunkortasunaren Txosteneko 6. eta 7. Kapituluetan neurri babesle, neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen, baita LAParen zaintze eta ikuskatze programaren inguruan jasotako xedapenek ere lotespen zuzena izango dute.

3.– Gainerako dokumentuak, «A. Memoria», «D. Ingurumen Iraunkortasunari buruzko Txostena» –6. eta 7. kapituluak izan ezik–, «E. Plangintzaren gaineko eraginak», «F. Herritarren parte hartzea» eta «G. Laburpena» alegia, adierazgarritzat edo erreferentziakotzat hartuko dira, eta, beraz, aurreko atalean aipatutako dokumentuen artean kontraesanik bada, 2. atalean aipatutakoak nagusituko dira.

## 7. artikulua.– Zehaztapenen maila eta lotura

1.– Zehaztapenen lotura moduari erreparatuz, planaren arau edukia kategoria hauetan sailkatzen da:

a) Xedapen arautzaileak eta antolamendu xedapenak, trazadurak lurraldera esleitzetik eratorriak. Horien aplikazioa eta lotura maila bizikleta azpiegituretan egin beharreko jarduera jakinekiko independenteak izango dira.

b) Proiektzio teknikoko xedapenak, aurretiazko proiektuen eta eraikuntza proiektuen bidezkoak. Ondorio horietarako, aukerei buruzko azterketak aurretiazko proiektu motatzat hartuko dira.

c) Plangintzako, programazioko, finantzaketako eta gainerako tresna ez-espazialeko xedapenak. Horien aplikazioa eta lotura maila proposatzen diren jardueren zehaztapen mailaren arabera planteatuko dira.

2.– Planaren xedapen arauemaileek, hauek «B. Araudia» dokumentua jasotzen dute, zuzeneko loturako xedapen arautzaileen maila izango dute, eta maila bera aplikazio eremu osoan.

Era berean, antolamendu xedapenak jasotzen dituen «C. Antolamendu planoak» dokumentua irismen eta lotura maila berekotzat hartuko da berak eragiten dien arlo guztietan.

## 8. artikulua.– Hirigintzako plangintza tresnen gaineko ondorioak.

1.– Antolamendu xedapenei dagokienez, lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko legedian aurreikusitako udal zein udalez gaindiko hirigintza antolamenduko tresnak GBBLAPen edukira egokitu behar dira, bertan ezarritako epeetan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko 4/1990 Legeak, maiatzaren 31koak, bere 9.2 artikuluan adierazten duen prozedurari jarraiki.

2.– Ondorio horietarako, GBBLAPek, «C. Antolamendu planoak» dokumentuan, Oinarrizko Foru Sarearen barnean Bizikleta bidezko Komunikazio Sistema Orokorra denari buruzko irudikapen grafiko bat jasotzen du. Eta horretara egokitu behar dira, adierazitako epeak betez, lehen aipatutako hirigintza antolamenduko tresnak.

3.– Aurreko ataletan ezarritako guztiak ezingo die kalterik egin proiektuen eraginpeko udalek aldaketa horiek txertatzeko has ditzaketen prozedurei.

## 9. artikulua.– Zehaztapenen irismena.

1.– GBBLAPek hainbat helburu ditu, hala nola Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarean garatzen diren jardueren erregimen juridikoa osatzea, Bizikleta bidezko Komunikazio Sistema Orokorra definitzea, eta bizikleta bideen lerroaren alboko eremuetako erabilera erregimena zehaztea eta artikulatzea. Gauzak horrela, plana bera antolamendu tresna egokia eta behar bestekoa da, hain zuzen ere lurralde eta hirigintzako antolamenduaren ikuspegitik justifikatzeko plan honetako aurreikuspenak betetzeko unean lurraldean garatzen diren jarduerak.

2.– Plangintza xedapen lotesleak, izaera orokorrekoak, proiektzio teknikoko lanabesen bidez egiten den zehaztapenaren arabera garatuko dira, lurralde eta hirigintza aldetiko tratamenduari dagokionez.

3.– Izaera zehatzeko plangintza xedapen lotesleak, plan honetan eta, horrenbestez, hirigintza antolatzeke planetan ere jasoak garatzeko, nahikoa izango da adierazten diren bizikleta azpiegiturak gauzatzeko kasuan-kasuan zehazten diren proiektzio teknikoko lanabesak tramitatzea eta onartzea.

## 10. artikulua.– Gauzatzeta, derrigortasuna eta desjabetzeko legitimazioa.

1.– GBBLAPek gauzatzeta indarra izango du behin betiko onarpena argitaratzen den unetik aurrera.

2.– Tresna honen derrigortasunaren eraginkortasuna indar lotesletik datorkio, zeren eta lotu egiten baititu eskumena duten lurralde historikoko administrazioak –tresna honetan bertan aurreikusitako jarduerak garatzeko eskumena baitute–, hirigintza antolamenduko tresnak, eta Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sareari eragiten dioten arlo eta lurralde mailako lanabes eta jarduerak; eta hauez guztiez gain, baita partikularrak ere, lurra erabiltzeko edo eraikitzeko ekintzak garatzen dituztelarik.

3.– Desjabetzeko legitimazioari dagokionez, plan hau onartzeak berekin ekarriko du bertan jasotako jarduera guztiak herri onurakotzat hartzea, eta zortasunak ezartzea, helburu bererako.

## 11. artikulua.– Publizitatea.

1.– Publizitate ondorioetarako, LAPen dokumentuaren eduki osoa publikoa izango da, eta informazioa nahi duen edo kontsultatu nahi duen pertsona fisiko edo juridiko ororen esku egongo da Gipuzkoako Foru Aldundian.

## III. TITULUA

## UDAL MAILAKO HIRIGINTZAKO PLAN ETA BESTE TRESNA BATZUEKIKO KOORDINAZIOA

## 12. artikulua.– Planak eta hirigintzako beste tresna batzuk egitea.

1.– Udalek, erakundeek eta partikularrek edozein motatako hirigintza planak erredaktatu behar dituztenean, eta, hala badagokio, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareari –Oinarrizko Udal Sareari nahiz Oinarrizko Foru Sareari– eragin diezaioketen hirigintza proiektuak eta planifikatzeko, gauzatzeko edo kudeatzeko bestelako hirigintza tresna batzuk erredaktatu behar dituztenean, Foru Aldundiari eman beharko diote horren berri, eta plan edo proiektu horien eremuan kokatuko den Sareari buruzko informazioa eskatu, lan eta hirigintza jarduera horiek koordinatu ahal izatearren bizikleta bideei dagokionez onartuta dauden edo erredaktatzen ari diren foru planetan eta proiektuetan aurreikusitakoarekin.

2.– Plan horiek eta hirigintzako beste tresna batzuk idazten dituztenek txostena eskatu ahal izango diote eskumena duen foru organoari, bizikleta bideen arloan eta Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Udal Sarearen eremuan jarraitu eta jorratu nahi dituzten irizpideei eta irtenbideei buruz.

3.– Dena den, formulatzen diren planek eta hirigintzako tresnek bat etorri beharko dute Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planeko zehaztapenekin eta horietan egiten diren aldaketekin, Plana garatzeko proiektuekin bezalaxe.

## 13. artikulua. Hirigintzako planak eta bestelako tresnak onartzea. Arauzko txostena.

1.– Egiturazko antolamenduko planak edo antolamendu xehatuko planak eta horiei dagozkien plan orokorrak, bateragarritze planak, sektorizazio planak, plan partzialak, plan bereziak, xehe-tasunezko azterketak, ordenantzak, katalogoak eta beste edozein hirigintza tresna onartu nahi izanez gero, arauzko txostena eskatu beharko zaio foru organo eskumendunari, baldin eta onartu nahi den horrek foru bizikleta bideren baten trazadura edo ezaugarriak aldatzea edo biderako beste sarbideren bat egitea eskatzen badu, edo babes eremuen mugei eragiten badie.

2.– Plan edo hirigintzako tresna horiek tramitzatzeko prozeduran, kasuan kasukoaren sustatzailerak eskatuko du txostena, hari hasierako onespina eman aurretik; eta ez da bidezkoa izango txostena eskatzen den datatik bi hilabete igaro baino lehen hasierako onespen hori ematea.

3.– Hirigintzako espedienteak Ingurumenaren gaineko Eraginaren Baterako Ebaluazio prozedura tramitatzea eskatzen duenean, Ingurumen Inpaktuari buruzko Aurretiazko Txostenaren eskariarekin batera eskatuko da txostena.

4.– Bizikleta bideen arloan eskumena duen foru organoak emandako txostena bizikleta eta oinezkoentzako bideetako alderdiei buruzkoa izango da soilik: segurtasuna, erosotasuna, konektagarritasuna, zirkulazioen beharrak eta bizikletaren politikarekin eta sustapenarekin zerikusia duen beste edozein arlo loteslea izango da plan honetan jasotako zehaztapenak betetzeko hala-kotzat hartzen den guztian, baita bizikleta bideen arloko araudiari dagokionean ere.

## 14. artikulua.– Indarrean dagoen plangintza egokitzea.

1.– Hirigintzako antolamendu eta plangintza tresnak nahiz obra publikoetarako proiektuak, Oinarrizko Foru Sareari dagokionez, egokitu egingo zaizkie lurraldearen arloko plan honetan ezartzen diren xedapenei. LAP honetan jasotzen diren zehaztapenak udal hirigintza plangintzan txertatuko

dira hori erredaktatzen edo berrikusten denean; txertatu bitartean, baina, zuzenean aplikatu ahal izango dira.

#### IV. TITULUA

##### INDARRALDIA, BERRIKUSTEA ETA ALDATZEA

15. artikulua.– Indarraldia.

1.– GBBLAP honen indarraldia zortzi urtekoa izango da.

16. artikulua.– Berrikustea.

1.– Bizikleta bideak antolatzeke irizpide berriak onartu izanaren ondorioz GBBLAP honetan jasotako zehaztapen edo aurreikuspenak orokorrean aldatzeari esaten zaio berrikustea.

2.– GBBLAPek indarrean dirauen bitartean sartzen diren aldaketak aldaketa, egoerek hala eskatzen dutenean berrikusi beharko da GBBLAP, eta, dena den, jarduera programen epeak amaitu baino urtebete lehenago.

3.– GBBLAP berrikusteko, lehen onarpenerako prozedura berari jarraitu behar zaio.

17. artikulua.– Aldatzea.

1.– LAP honetako zehaztapen lotesleetan mamizko aldaketak egiteko, aurretiaz aldatu beharko da LAP bera, onarpenerako ezarritako prozedura beraren arabera. Era berean, aldaketa arruntek alderdi puntualei egingo diete erreferentzia, eta ez onarpenera eraman zuten irizpideei. Onarpena, izan ere, Foru Aldundiari dagokio.

2.– Ondorio horretarako, ez dira aldaketatzat hartuko izaera jakineko plangintza xedapen lotesleak, ez «C. Antolamendu planoak» dokumentua osatzen duten antolamendu xedapenak, proiektu teknikoek xehetasun handiagoa behar dutela-eta zehaztapentzat edo doitzetaz hartzen diren eta, beraz, gainerako plangintza tresnetan eta hirigintza antolamenduko tresnetan ondorioak dituztenak, ezta eragindako lurzorua beraren errealitateak ezartzen dituen doitzeak ere. Bizikleta bideen gaian eskumena duen departamentuak adierazten duena izango da irizpidea.

3.– Burututako Oinarrizko Foru Sareko jarduerak planifikatze eta gauzatzeak ez dakar, inolaz ere, LAP aldatzea, nahiz ondorengo berrikusketetan kontuan hartu ahal izango diren.

4.– «C. Antolamendu planoak» dokumentuan jasotako LAP honetako plangintza xedapenek lotura maila desberdina dute, planifikatzen, aipatzen edo eragiten dituzten jardueren irismen desberdinaren arabera:

a) Planifikatutako Oinarrizko Foru Sareari dagokionez –horren trazadura lurraldearen arloko plan honetan definituta dago 1/10.000 eskalan– lotura maila jakin bat dute zehaztapenek.

b) Planifikatutako Oinarrizko Foru Sareko gainerako jardueri dagokienez, aukeren azterketaren edo aurretiazko proiektuaren faltan daude, plan honek ez du behin betiko trazadurarik definitzen eta, beraz, ez du Bizikleta bidezko Komunikazioen Sistema Orokorrari atxikiko zaion lurzorurik erreserbatzen. Planeko zehaztapenek trazadura orientagarriko iradokizun maila dute. Horrenbestez, aukerei buruzko azterketek eta aurretiazko proiektuek erreserbatuko dute, dagokionean, azkenean behar den lurzorua.

c) Oinarrizko Udal Sareko jardueri dagokienez, zehaztapenek izaera orientagarria dute, Oinarrizko Foru Sarearekin lotzeko puntuen kasuan izan ezik. Azken horiei dagokienez, zehaztapenak lotesleak izango dira, lurraldearen arloko plan honetako «C. Antolamendu planoak» dokumentuan definitu baitira (1/10.000 eskala).

## V. TITULUA

### GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN ERREGIMEN JURIDIKOA

18. artikulua.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Burututako Oinarrizko Foru Sarea eta Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea.

1.– Gipuzkoako bizikleta azpiegituretan egin beharreko jardueri dagokienez, Burututako Oinarrizko Foru Sareari eta Planifikatutako Oinarrizko Foru Sareari dagozkienak bereiziko dira.

2.– Horrenbestez, Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea izango da eraiki behar den eta izango duen egitura –trazadura edo loturik dituen aukerak definituta– lurralde antolamendurako tresna honetan jasotzen den bizikleta azpiegitura. Ez dira bizikleta bide berritzat hartuko zabalgunek, hobekuntzak, egokitzapenak eta aldaketak, lehendik dauden bizikleta bideen trazaduran mamizko aldaketarik ez dakartenak.

3.– Lurralde historikoan dagoeneko badiren bizikleta azpiegituren gainean garatzen diren gainerako jardueri dagokienez, Burututako Oinarrizko Foru Sarean egindako jardueratzat hartuko dira. Kontzeptu horretan sartzen dira bideak luzatzeko lanak, bideak zabaltzekoak edota bide horiek ongi funtzionatzeko elementu funtzionaletan egindakoak.

19. artikulua.– Plangintza eta eraikuntza.

1.– Bizikleta azpiegituren plangintzak hiru ekintza mota hartzen ditu:

a) Lurralde plangintzako ekintzak, adiera hertsian.

b) Proiekzio teknikoko ekintzak, alorreko legediak eskatzen dituen aurretiazko proiektuak eta eraikuntzakoak osatzen dituztenak.

c) Programazio ekintzak, dokumentu honetako 7. artikuluan zehaztutakoari jarraiki.

2.– Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarearen lurralde plangintzari dagozkionak lurraldearen arloko plan hau formulatuz garatzen dira nagusiki; eta proiekzio teknikoko tresnen bidez zehaztu eta garatuko dira.

3.– Burututako Oinarrizko Foru Sareko jardueren plangintzari dagokionez, horiek dagozkien proiekzio teknikoko tresnetan garatuko dira. Jardueraren bat GBBLAPen definitutako irizpide nagusietatik kanpo geratzen bada, horretarako arrazoia berri eman beharko da.

20. artikulua.– Lursailak kudeatzea eta eskuratzea.

Foru bizikleta bideetan jarduteko beharrezkotzat hartzen diren lurrak desjabetze sistemaren bidez lortuko dira eskuarki. Hala ere, hirigintzako legedian aurreikusten diren beste modu batzuk ere erabili ahal izango dira sistema orokorrak lortzeko.

21. artikulua.– Ekintzen gauzatze materiala.

1.– Ekintzen gauzatze materialaren lurralde izaerari erreparatuta, horiek ez dira udal baimenaren mende egongo.



2.– Burutako Oinarrizko Foru Sarea kontserbatzea, zabaltzea eta hobetzea nahiz Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea gauzatzeko ekintzak gauzatzea da gauzatze materiala. Ildo beretik, Sarearen elementu funtzionalei dagokien guztia udal baimena izatetik salbuetsitako erregimen juridiko beraren mende egongo da.

3.– Lehen eta bigarren atalean jasotakoa jakinarazi egingo zaie eragindako udalerriei, indarrean dagoen hirigintza plangintzarekiko adostasuna izapidetu dezaten. 30 eguneko epea dute horretarako, eta epe hori igarota ez bada erabakirik jasotzen, administrazio isiltasun positibotzat hartuko da.

22. artikulua.– Foru bizikleta bideen proiektzio eta ingurumen kontrolerako zein horiei lotutako herritarren partaidetza eta ukituekiko harremanetarako tresnak.

1.– Planifikatutako Oinarrizko Foru Sareko bizikleta bideen proiektzioari dagokionez, plan honek jaso egiten ditu 1/2007 Foru Arauak aurreikusten dituen garapen tresnak, hala nola aurretiazko proiektuak (aukerei buruzko azterketak, trazadura proiektuak, aurreproiektuak) eta eraikuntzako proiektu teknikoak. Horrela, bizikleta bideen proiektzioa egokitu egingo zaio, kasuan-kasuan eta oro har, ondoren datorren derrigorrezko memoriari:

a) Informazioa. Alderdi geoteknikoak eta topografikoak jasoko ditu; ingurumenean txertatzea; bizikleta bidaiak sortzen dituzten nodoak detektatzea eta hierarkizatzea; erabiltzaile ereduaren karakterizazioa; trafiko motordunaren presentzia edo falta eta garrantzi bereziko beste hainbat alderdi. Beste administrazio batzuei kontsultak egiteaz gain, egoki iritziz gero partaidetza saioak egin ahal izango dira interesatuta dauden gizarte eragileekin, baliozko informazioa eta ekarpenak biltzearren.

b) Aukerei buruzko azterketa. Aukerei buruzko analisi bat egingo da, irizpide anitzi jarraiki, kontuan harturik honako alderdiak: geoteknia, bidearen funtzionalitatea, ingurumenaren gaineko afekzioak, kultur ondarearen gaineko afekzioak, jarduera, sarbide eta zerbitzuen gaineko afekzioak; ondasun eta eskubideen gaineko afekzioak; kostu ekonomikoa. Era berean, faktore kritikoaren detekzioa eta prebentzio neurriei zein neurri zuzentzaile eta konpentsaziokoei buruzko aurretiazko proposamen bat izango du. Beharrezko kontsultak egiteaz gain, partaidetza saioak egin ahal izango dira interesatuta dauden eragileekin, kontsulta ondorio hutsetarako; horien ondortik, eskumena duen foru organoak erabakiko du behin betiko trazadura aukera.

c) Zehaztapen teknikoa, apartatutako aukera eraikitzeko. Azkenean aukeratzen den irtenbidea 1/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzkoak, 24. artikuluan xedatzen duenaren arabera garatuko da. Eta 25. artikulua ere aplikatu ahal izango da ukituekiko harremanari dagokionez, lurraren eta desjabetzeen kudeaketari buruzko araudiarekin batera.

2.– Ingurumen kontuetarako, ingurumenaren arloan indarrean dagoen araudiak xedatzen duenera joko da, eta, edonola ere, erabakiak behar bezala hartzeko beharrezko analisiak jasoko ditu. Beraz, eta kasuan-kasuan egokiturik, ondoko alderdiok landu ahal izango dira: ingurumen arloko kokapen eta legedia; ingurumen inbentarioa; ingurumenaren gaineko ondorioen identifikazio eta balorazioa; aukerei buruzko ingurumen analisi eta balorazioa; prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaile eta konpentsaziokoen aurretiazko proposamena; prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaile eta konpentsaziokoen definizioa, behar denean ingurumena leheneratzeko proiektu bat osatzeko; ingurumen zaintzarako programa.

3.– Eraginkortasuna bermatzeko adinako zehaztasunez gehituko dira, Lurraldearen Arloko Plana garatzeko planei eta proiektuei gehitu beharreko neurri babesle eta zuzentzaileak, eta era berean ikuskatze programaren jarduerak, dagokien definizio eskalaren arabera. Hala, neurri horien

aurrekontua egin daitekeen kasuetan, obra unitate gisa definituko dira, planetan eta proiektuetan bakoitzari dagokion zenbatespen ekonomikoa adieraziz. Eta aurrekontua egitea ezinezkoa den kasuetan, berriz, baldintza teknikoan agirian sartuko dira.

4.– Planifikatutako Oinarrizko Sareko proiektu bat ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedura-pean baldin badago, Ingurumen Inpaktuaren Azterketa beharko du proiektuak, edo, hala badagokio, Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Sinplifikatua, 2. atalean aipatutakoaren antzeko indize batez.

5.– Garatu behar diren esku-hartzeetan aurreikusten diren jarduerak errespetatu egingo dute 92/43/EEE Zuzentarauak ezartzen duen prebentzio erregimena, bai Batasunaren Intereseko Lekuekin (BIL) bai Kontserbazio Bereziko Eremuekin (KBE) bat datozen tartetan. Proiektugileak ikusten badu aurretiazko proiektuek eta eraikuntzako proiektu teknikoek, zuzenean edo zeharka, eragina izan dezaketela Natura 2000 Sareko eremuetan, Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitaterako Zuzendaritzara bidaliko dira proiektu horiek, Euskal Autonomia Erkidegoan Natura 2000 Sareak duen Behatoki Iraunkorra izaki berak balora dezan dokumentu horiei buruzko ingurumenaren gaineko eraginaren azterketarik egin behar den; erabaki hau Ingurumen Eraginaren Adierazpena igortzeko eskumena duen ingurumen organoaren ez beste inoren esku egongo da.

6.– Garatu behar den esku-hartzeetako bakoitzak bete egingo du indarrean dagoen lurralde plangintza partzialak zein alorreko plangintzak xedatzen dutena, babes figurak harturik bereziki aintzat, hala nola: EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatzen Lurraldearen Arloko Plana; Hezeguneak Antolatzen Lurraldearen Arloko Plana eta EAEko Itsasertza Babesteko eta Antolatzen Lurraldearen Arloko Plana. Ildo beretik, aurretiazko proiektuek eta eraikuntzako proiektu teknikoek EAEko Naturgune Babestuen Sarea osatzen duten eremuen (parke naturalak, biotopo babestuak, Natura 2000) Antolamendu eta Kudeaketa planekin duten bateragarritasunaren analisi bat jaso beharko dute.

## VI. TITULUA

### BIZIKLETA BIDEZKO KOMUNIKAZIOAREN SISTEMA OROKORRA

23. artikulua.– Birtualtasuna eta irismena.

GBBLAPen helburu nagusietako bat da Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokorra definitzea eta, kalifikazio horri dagokionez –haiek lortzeko eta baloratzeko ondorioetarako egiten den sailkapena edo esleipena dena dela–, hirigintza antolamenduko tresna guztiak lotzea.

24. artikulua.– Sartze irizpideak.

1.– Lurrak GBBLAPen bidez Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokorrean sartzeko irizpidearen oinarrian behar bat dago, lurraldearen eta hirigintzaren ikuspegitik lurrak erreserbatzeko, hornitzeko eta antolatzen beharra alegia, hain zuzen ere bizikleta azpiegiturak jarri ahal izatera begira.

2.– Hala, lurrak Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokorrean sartzean, lurraldea egituratzeko oinarrizko elementutzat hartzen dira, eta, kalifikazio horren ondorioz, lurra erreserbatu behar da bizikleta azpiegitura ongi gauzatzeko.

3.– GBBLAPen Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarerako Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokortzat hartutako lurrak «Bizikleta Bideen Korridorea» deituan itxuratzen dira, kartografiari dagokionez. Hori, azken batean, bizikletaren jabari publikoak dituen eskakizunek behar

dituzten egokitzapenak egin ahal izateko behar beste zabaleko zerrenda bat da. Egokitzapen lan horiek geroago egingo dira, proiektio teknikoko tresnak baliatuz horretarako.

4.– Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarearen azpiegitura gauzatu ondoren, bizikletaren jabari publikora lotuta geratu ez diren Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokortzat kalifikatutako lurri hirigintzako beste edozein kalifikazio eman ahal izango zaie, betiere bizikleta bideen aldameneko lurak izaki duten erregimenarekin bateragarria den bat.

25. artikulua. Definizioa.

1.– Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokorra definitzeko, Burututako Oinarrizko Foru Sarea eta eraikitzeko dagoen Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea bereizi behar dira.

2.– Bizikleta bidezko Komunikazioaren Sistema Orokorra, Burututako Oinarrizko Foru Sarearen kasuan, osagai hauek ditu: bizikleta bideak hartzen duen plataforma, bideari berari atxikitako elementu funtzionalak, eta Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak arautzen duen jabari publikoko eremua.

3.– Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarearen azpiegitura burututa dagoenean, Bizikleta bidezko Komunikazio Sistema Orokorrean sartuko dira bizikleta bideko zelaiguneak okupatzen dituen lurak, elementu funtzionalak, eta hiritargarriztat eta hiritarrezintzat sailkatutako lurreko 1 m zabaleko zerrenda bat, eta 1 m zabaleko bat hiri lurrean, betiere zubi, tunel eta antzeko obra eta egituren kasuan adierazitakoaren salbuespenez.

Hiri lurraren kasuan, distantzia horiek murriztu egin ahal izango ditu bizikleta bideen arloko eskumena duen administrazioak, baldin eta murrizte horren beharra egiaztatzen badu eta bideetako trantsitua zein horien kudeaketa aldatzen ez badu.

## VII. TITULUA

### BIZIKLETA BIDEAREN ALBOKO EREMUEN BABES ERREGIMENA ETA ERABILERA ETA ERAIKUNTZA BALDINTZAK

#### LEHENENGO KAPITULUA

#### XEDAPEN OROKORRAK

26. artikulua.– Birtualtasuna eta irismena.

1.– Babes erregimena eta erabilera eta eraikuntza baldintza bereziak aplikatzeari dagokionez, Gipuzkoako Bizikleta Bideei buruzko 1/2007 Foru Arauak, urtarrilaren 24koak, xedatutakoa bete behar da, eta bertan adierazitako irismenaren eta ondorioen arabera aplikatuko da. Hala, GBBLAP honek arau horretan ezarritakoarekin bat etorritik definitzen ditu foru bizikleta bideen alboko eremuak.

2.– Atal honetan jasotako xedapenen lotura zuzena izango da, bai partikularrentzat, bai administrazio publikoentzat, lurzoruaren erabilera eta eraikuntza jardueri dagokienez.

3.– Udalerrriak ere zehaztaper horietara lotuta egongo dira hirigintza ekintzak gauzatzean, une hauetan:

a) Lurretan eremuak bereizten dituztenean eta lur horiek kalifikatzen dituztenean bere plangintza orokorrerako tresnetan.

b) Garapen antolamendurako tresnak eta hirigintza proiektuak egin eta onartzean.

c) Hirigintza gauzatzeko tresnak egin edo onartzean eta eraketa onartzean, baita elkarlaneko hirigintza entitateen funtzionamendua zaintzean ere.

d) Onibarrak erabiltzeko eta horietako eraikuntza lanetarako arauak eta ordenantzak egitean, horien hirigintzako sailkapena dena dela, eta, bereziki, atzeraeramanguneak eta lerrokadurak zehazteko unean.

e) Hirigintzako kontrol eta diziplinako jardueretan.

4.– Titulu honetan jasotako zehaztapenak betetzen ez dituzten aurretiazko erabileren, eraikinen eta instalazioen erregimen juridikoari dagokionez, hirigintza antolamendurako tresnek erregimen juridiko egokia ezarri beharko dute haiek ongi betetzen direla bermatzeko; eta, kasu bakoitzean, beharrezko egokitzapenak egin ahal izango dira halaber.

27. artikulua.– Foru bizikleta bidearen alboko eremuen definizioa.

1.– Lurzoruaren babes erregimena eta erabilera eta eraikuntza baldintzak zehazteko, bizikleta bidearen aldamenean, zelaigunearen kanpo ertzetik hasita, bi zerrenda mugatuko dira berehala: jabari publikoko eremua eta zortasunekoa. Bi horiek zehaztuko dute alboko lurren jabetza eskubidearen estatutu espezifikoa.

2.– Hurrengo artikuluetan jabari publikoko eremua eta zortasunekoa definitzeko aurreikusitako distantziak aldatu egin ahal izango dira alorreko legeriak hala adierazten duen kasuetan.

28. artikulua.– Jabari publikoko eremua.

1.– Foru bizikleta bideek eta horietako elementu funtzionalek okupatutako lurra jabari publiko-koak dira.

2.– Lur horiekin batera, jabari publikoko eremutzat hartuko da bizikleta azpiegituraren alboko titulartasun publikoko zerrenda, metro bete zabalekoa, zelaigunearen kanpo ertzetik hasita alde banatan.

Ondorio guztietarako, zelaigunearen kanpoko ertza lur-erazketaren ezpondaren, lubetaren, edo, hala badagokio, alboko hormaren eta lur naturalaren arteko elkargunea izango da.

Kasu berezietan (zubiak, biaduktuak, tunelak, egiturak edo antzeko obrak), zelaigunearen kanpo ertza obren ertzak lurrean duen proiektzio bertikaleko lerroa izango da. Egituraren euskarriek okupatzen duten lurra, edonola ere, jabari publikokoa izango da.

3.– Foru bizikleta bidea foru errepide baten alboko edo gertuko lur zerrenda batean eraikita badago, eta, beraz, haren jabari publikoko zerrendaren barnean, jabari publikoko eremu berria zehazteko garaian bi neurketak aplikatzearen ondoriozko handiena nagusituko da.

29. artikulua.– Zortasun eremua.

1.– Foru bizikleta bideek zortasun eremu edo zorgune bat izango dute, alde banatan, lur zerrenda batez zehaztuta; zerrendaren barruko muga jabari publikoko eremua bera izango da, eta kanpoko muga aipatu eremu horretatik bi metro eta erdira jarritako bi lerro paralelo.

2.– Foru bizikleta bidea foru errepide baten alboko edo gertuko lur eremu batean eraikita badago, eta, beraz, haren jabari publikoko zerrendaren barnean, zortasun publikoko eremu berria zehazteko garaian bi neurketak aplikatzearen ondoriozko handiena nagusituko da.

30. artikulua.– Jabetza eskubidearen osaera foru bizikleta bideen jabari publikoko eremuaren alboko zonetan.

1.– Bizikleta bideen jabari publikoaren alboko eremuetako erabilera eta eraikuntza mugek ez dute kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik emango, betiere jabetza eskubidearen eduki arrunta osatzen eta mugatzen duten elementuak badira.

2.– Aurreko atalean xedatutakoa horrela izanik ere, kalte-ordainak jasotzeko eskubidea emango dute zortasun eremuaren aldi baterako okupazioek eta haren erabilerak eragindako kalte eta galerek. Zortasun eremuaren erabileraren ondoriozko gainerako debekuak, mugak, zortasunak eta ondorioak, betiere galera ekonomikorik eragiten ez badute, bizikletaren zerbitzu publikoaren aldeko jabetzaren muga orokorrak izango dira, eta ez dute kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik emango.

## BIGARREN KAPITULUA

### FORU BIZIKLETA BIDEEN ERABILERA ERREGIMENA

31. artikulua.– Foru bizikleta bideen erabilera. Bizikleta bideetan oinezkoak eta ibilgailuak sar-tzea eta igarotzea.

1.– Jabari eta erabilera publikoko ondasunak diren heinean, erabiltzaileentzat doakoa izango da bizikleta bideen erabilera arrunta, eta eskubide hori askatasunez erabiliko da. Errespetatu egin beharko dira, dena den, bide horien izaera, afektazio ekintzak, erabilera publikorako zabalik ego-tea, zirkulazio eta bide segurtasuneko arauak eta indarrean dauden bestelako xedapenak.

2.– Salbuespen gisa Foru Aldundiak, organo eskumendunen bidez, foru bizikleta bideen tarte jakin batzuetan aldi baterako edo behin betiko mugak jarri ahal izango dizkio zirkulazioari, baldin-tzek, egoerak, eskakizun teknikoek edo bide segurtasunak hala eskatzen dutenean.

3.– Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sareko tarte batzuetan baimena beharko dute, eta eskatu ahala emango da, GBBFAko 43. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera hala dagokionean, ibilgailu motordunen erabilera espezifikoei, baita aisia, turismo, ingu-rumen hezkuntza eta antzeko jarduerekin zerikusia duten ibilgailuek ere.

32. artikulua.– Bizikleta bideen jabari publikoko eremuko erabilera eta eraikuntza baldintzak. Debekuak.

1.– Oro har, jabari publikoko eremuan espresuki debekatuta dago obra, erabilera edo instalazio oro, erabilera edo jabari publikoko helburua duten lagapen demanialen edo jatorrizko profilarren aldaketen kasuan izan ezik. Hala ere, kasu horietan, bizikleta bideen arloan eskumena duen orga-noaren berriazko baimena beharko da.

2.– Zerbitzu sareak ezingo dira jabari publikoko eremutik joan, ezta eremu hori zeharkatu ere, berriaz baimendutako kasuetan izan ezik.

33. artikulua.– Zortasun eremuko lurren erabilera eta eraikuntza erregimena.

Zortasun eremuan ezingo da eraikin berririk altxatu, ezta berreraikuntza lanik ere egin, egoera konkurrenteak daudenean eta foru bizikleta bidea kaltetuko ez dela arrazoitzen denean izan ezik. Kasu horretan, bidearen organo titularrak baimena eman beharko du.

1.– Zortasun eremuan lur azpiko zerbitzuak soilik jarri ahal izango dira, eta haiek mantentzeko, kontserbatzeko eta ustiatzeko eginkizunak, oro har, foru bizikleta bidetik at egin beharko dira.

2.– Oro har, zortasun eremuaren nekazaritza eta abeltzaintzako erabilera onartuko da, betiere bizikleta bidearen funtzionaltasunari eragiten ez badio.

3.– Zortasun eremuko eraikinei eta instalazioei dagokienez, finkatzeko, apaintzeko eta hobetzeko obrak baimendu ahal izango dira.

34. artikulua.– Baimenen erregimen orokorra.

1.– Foru bizikleta bideetan, haien jabari publikoko eremuetan eta babes eremuetan era guztietako jarduerak, lanak eta obrak egiteko, administrazioaren baimena beharko da. Era berean, baimenen erregimenari dagokion guztirako, lurraldeko araudian ezarritakoari jarraituko zaio.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.– Hirigintza antolatzeko tresnak egokitzeko epeak.

1.– Hirigintza antolatzeko tresnak egokitu egin behar dira dokumentu honetako 8. artikuluan jasotzen diren zehaztapenetara. Horretarako, legeak ezartzen dituen epeak beteko dira.

2.– Lurralde antolaketako tresna hau indarrean sartzen denean plangintza tresnak berrikuspen fasean dituzten udalerriek prozedura horretan egin beharko dute egokitze lana.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Neurri berezia.

Bizikleta azpiegituren berezko ezaugarriei erreparaturik, eta hiri ehunean zeharo txertatuta daudela gogoan, VI. Idazpuruan jasotzen diren erregulazioak ez dira aplikatuko Bizikleta Bideen Oinarrizko Sareari lotzen zaizkion bizikletarako udal azpiegituretan.

## II. ERANSKINA

### INGURUMEN IRAUNKORTASUNARI BURUZKO TXOSTENA

#### 6. KAPITULUA

##### PREBENTZIO ETA ZUZENTZE NEURRIAK.

###### 6.1.– Planteamendu metodologikoa.

Aurreko kapituluan, kasu batzuetan aurreikusitako ondorioak identifikatzera mugatu da inpaktuen analisia, inpaktu horien zenbatekoa zehazteko aukerarik gabe, hain zuzen GBBLAP bezalako plangintza dokumentu batek berez duen xehetasun mailaren eraginez. Testuinguru honetan, IIT honetatik ezin da dokumentu honetako 5.3. atalean identifikatutako ingurumen inpaktu bakoitzerako prebentzio eta zuzentze neurri zehatzik eskaini, batez ere 5.3.1etik 5.3.9ra bitarteko epigrafeetan aztertutako GBBOSen egiteko dauden tarteen eraikuntzatik datozen ondorioen kasuan.

Horren orde, IIT honek gerora planaren garapen tresnetan landu beharko diren oinarrizko neurriak edo irizpideak proposatzen ditu, bereziki eraikuntza proiektu teknikoetan garatu beharrekoak. Kapitulu honen egitura hurrena da:

- Ingurumen kontrolerako proposatutako tresnak.
- Aurretiazko proiektuetan eta eraikuntzako proiektu teknikoetan prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio neurriak definitzeko irizpideak.
- Ustiatze fasean prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak definitzeko irizpideak.
- Sustatze fasean prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak definitzeko irizpideak

###### 6.2.– Ingurumen kontrolerako proposatutako tresnak.

Gauzatzeko dauden bizikleta bideak eraikitze, eta Planifikatutako Oinarrizko Foru Sareari (POFS) dagokionez, GBBLAPek hainbat garapen tresna jasotzen ditu, 1/2007 Foru Arauak dagoneko aurreikusten baititu I. Idazpuruko II. eta III. atalburuetan; honakoak dira:

- urretiazko proiektuak: aukeren azterketak, trazadura proiektuak, aurreproiektuak.
- eraikuntza proiektu teknikoak.

Bizikleta eta oinezkoentzako bideen proiektzioa egokitu egingo zaio, kasuan-kasuan eta oro har, honako sekuentziari:

- 1. fasea: informazioa.
- 2. fasea: aukerak aztertzea.
- 3. fasea: zehaztaperen teknikoak, apartatutako aukera eraikitze.

Ingurumen aldagaia bizikleta eta oinezkoentzako bideak proiektatzeko prozesuan sartzea aukeratu du GBBLAPek, horiek definitzeko aurreikusitako faseetako bakoitzean sartzea zehazki. Horrela eginez gero, izan ere, saihestu egiten da ingurumenaren gaia eranskin edo proiektuetatik beretatik bereizirik dokumentutzat hartzea, lagunduz, aldiz, –eta IIT honek positibotzat jotzen du, gainera, horrela izatea– erabakiak hartzeko prozesuan gai hori txertatzen eta baloratzen.

Hala, informazioa biltzeko hasierako fasetik planteatzen da proiektuen ingurumen mailako ego-kitzea proiektuetan beretan sartzea. Eta aukerak aztertzeke faseko irizpide anitzeko analisisian sartu egiten da, halaber, ingurumen aldagaia, eta baita prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurrietarako proposamenak egitea ere detektatzen diren faktore kritikoei dagokienez; definizio teknikoaren fasean, erasandako ingurumena leheneratzeko lanak proiektuetan sartzea ezartzen da.

Planak zehazten du ezen «ingurumenarekin lotutako kontuak tratatzean, uneoro jarraituko dela derrigorrean bete beharreko ingurumen araudian xedatutakoa, eta, betiere, erabakiak behar bezala oinarriturik hartu ahal izateko behar diren analisiak jasoko direla.» Eta eransten du ezen, kasuen arabera betiere, balitekeela hainbat eduki jorratu behar izatea, honakoak zehazki:

- Ingurumen mailako kokapen eta legedia.
- Ingurumen inbentarioa.
- Ingurumen ondorioak identifikatzea eta baloratzea.
- Aukerei buruzko ingurumen azterketa eta balorazioa.
- Prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen hasierako proposamena.
- Prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaile eta konpentsatzaileen definizioa; behar denean, ingurumena leheneratzeko proiektua itxuratuko dute horiek.
- Ingurumena zaintzeko programa.

GBBLAPek orientazio gisa planteatzen du Oinarrizko Udal Sarearen trazadura. Horregatik, Planak gomendatzen du Planifikatutako Oinarrizko Udal Sarea eraikitzeke udal erakundeek sustatzen dituzten azterketa eta proiektuetan ere antzeko bide bati jarraiki jasotzea ingurumen faktorea, udal mailako tarteen proiektioan.

Planak aukerei buruzko aurretiazko azterketa bat jasotzen du POFs osatzen duen luzera guz-tiaren % 31rako, zehazki lurraldean txertatzen zailagoak diren edo ingurumen aldetik sentikorrek diren inguruetan dauden tartetarako. Kasu horietan, proposatzen den trazadura ez da loteslea, aurretiazko proiektuetatik abiatuz definizio maila handiago bat izatearen faltan, eta iradokizun mailan mantentzen da. Egungo definizio maila ez da behar bestekoa izan daitezkeen afekzioak analizatzeko eta inguruan identifikatutako ingurumen balio nagusien benetako babesa ziurtatzeko.

Dena den, IIT honek egiten duen analisiaren arabera, GBBLAPek tarte hauetarako aurretiazko azterketa bat egin beharra ezartzea ingurumen kontrolerako mekanismo bat da, berez, ingurumen aldetik OFSen diseinu egokiagoa lortzera begira.

POFSeko proiektu bat ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedurapean baldin badago, indarrean dagoen legearen arabera Ingurumen Inpaktuaren Azterketa beharko du, edo, hala badagokio, Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Sinplifikatua, antzeko indize batez eta, betiere, egiten den unean indarrean dagoen ingurumen legediari jarraiki.

Proiektuak faseka egiten direnean –aurretiazko proiektuetatik hasi eta eraikuntza proiektueta-raino–, ingurumen memoriek xeheago doitu eta garatu beharko dituzte inpaktuen identifikazioa eta balorazioa, prebentzio neurrien, neurri zuzentzaileen eta konpentsazio neurrien proposamena, eta ingurumen zainketa eta jarraipenerako programak.



Ustiatze faserako, GBBLAPek GBBOSren «kontserbazio plan» bat idaztea eskatzen du. Kontserbazio plan horrek ingurumenari buruzko kapitulu bat izango du, eta haren gutxieneko edukia hau izango da:

- Ingurumenean eragina izan dezaketen kontserbazio jarduerak identifikatzea.
- Identifikatutako ekintzen ingurumen ondorioak baloratzea.
- Prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaileen proposamena, horien balorazio ekonomikoa barne.
- Ingurumena zaintzeko eta jarraitzeko plana.
- Dokumentazio grafikoa: planoak, irudiak, argazkiak, etab.

Beste tresna batzuen kasuan, berriz, ez da planteatzen beharrezkoa denik ingurumen kontrolerako berariazko dokumenturik. Izan ere, ulertzen da berariazko kapituluak sartuta kontrolaren eta neurri osagarrien proposamenaren beharra betetzen dela; kasu honetako tresnak honakoak dira:

- Oinarrizko sarearen ebaluazioa eta segimendua.
- Bizikleta Bideen Katalogoa.
- Seinaleak erregulatzea.
- Bizikletaren erabileraren sustapena.

6.3.– Aurretiazko proiektuetan eta eraikuntza proiektuetan prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio neurriak definitzeko irizpideak.

Ondoren, GBBLAPen garapen tresnetan garatu beharko diren oinarrizko irizpideak eta neurriak proposatzen dira, POFsren eraikuntzari dagozkionak zehazki, aurretiazko proiektuetatik hasi eta, hala badagokio, eraikuntza proiektu teknikoetaraino iritsiz. POUSerako ere baliozkoak dira irizpide horiek eta, horrenbestez, horiei jarraitzea gomendatzen da. Neurriak proiektuaren osagai guztietara zabalduko dira: trazadura, desjabetze, aldi baterako okupazio, instalazio osagarri, hondakindegia, lurren egokitzapen eta abarretara. Proiektuetan neurriak ere sartuko dira, neurri horiek obra fasean zehar betetzen direla bermatzeko.

#### 6.3.1.– Landaretza.

– Aurretiazko proiektuek eta eraikuntza proiektuek landaretza interesgarriari eragitea ekidindo dute, bereziki Batasunaren intereseko habitatei (zehazki lehentasunezko) Natura 2000 Sareko espazioetan; horretarako, balio txikieneko landaretza-formazioetan eragiten duten edo intereseko landaretza-azalera txikiena kontsumitzen duten alternatibak aukeratuko dira.

– Mehatxatutako landaretza-populazioan ondorio negatibo txikiak dituzten alternatibak aukeratuko dira, bereziki babes maila handieneko landaretzaren kasuan.

– Landaretza-masa interesgarriari eragitea ezinbestekoa den kasuetan, proiektuek konpentsazio neurri egokiak proposatuko dituzte. Ibaiaren eta oinezko-bizikleta bideen artean sorturiko eremuetan ibaiertzeko basoak garatzea gomendatzen da, neurri konpentsatzaile gisan.

– Prebentzio neurriak definituko dira trazaduratik gertu dauden landaretza-masa interesgarriari eta kontserbatu beharrekoei eragitea ekiditeko: balizak jartzea, aleak markatzea, etab.

– Proiektuek landaretza berreskuratzekeo neurriak definituko dituzte, ezpondek, instalazio osagarriek, aldi baterako okupazioek eta abarrek eragindako eremuak leheneratzeko. Landaretza berreskuratzean, bertako espezieak soilik sartuko dira. Salbuespenez, hiri eremuetan, espezie apaingarriak erabili ahal izango dira, baina inbaditzaileak ez direnak.

Proiektuek landare inbaditzaileak zabaltzea saihesteko neurriak bermatuko dituzte.

### 6.3.2.– Fauna.

– Aurretiako proiektuek eta eraikuntza proiektuek babes maila handienetan katalogatutako espezie habitatei eragitea ekidingo dute, hau da, galzorian daudenei eta kalteberak direnei eragitea, eta, horretarako, inpaktu txikieneko aukerak jorratuko dira.

– Espezie katalogatuen habitatetan eragin dezaketen tarteeak berariazko azterketak izango dituzte, eta eragin hori ekiditeko edo minimizatzekeo neurriak definituko dituzte: egite epeak, aleak eremu seguruetara eramatea, gerora habitatak berreskuratzea, etab. Kasu horietan, onartutako kudeaketa planen eta gai horretan eskumena duten erakundeen jarraibideak beteko dira.

– Proiektuek antzeko neurriak izan beharko dituzte, halaber, katalogatu gabeko fauna espezieentzat edo hain zorrotzak ez diren kategorietan sartutakoentzat.

– Edonola ere, bisoi europarraren (*Mustela lutreola*) eta muturluze piriniarraren (*Galemys pyrenaicus*) interes bereziko eremuekin bat datozen tarteen eraikuntza proiektuek, Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez kasuan kasuko Kudeaketa Planak dioenarekin bat, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren derrigorrezko txostena izan behar dute.

### 6.3.3.– Naturgune babestuak.

– Aurretiako proiektuetan eta eraikuntza proiektuetan naturgune babestuetan eragin txikiena duten aukerak jaso beharko dira, ahal den neurrian, bereziki balio handiko eremuei dagokienez. Beti izango dira kontuan haietaz onartutako antolamendu eta kudeaketa tresnak.

– Zuzenean edo zeharka Natura 2000 Sareko espazioei eragiten zaien eremuetan, proiektuek hainbat neurri jasoko dute haietako elementu baliotsuenei eragitea ekiditeko, esaterako kudeaketa elementu funtsezkoek ez eragiteko, horrelakoak definituta daudenean, edo, bestela, Habitategi eta Hegaztieguruzko Zuzentarauetako eranskinetan sartuta dauden Batasunaren intereseko habitategi (bereziki lehentasunezkoek) eta fauna espezieei ez eragiteko.

– Bizikleta bidea ibaietako BILen paraleloan doan eta egun erabiltzen ez diren trenbide plataformetan edo lehendik dauden errepideetako bazterbidean oinarritzen den kasuetan, saihestu egingo da plataforma hauek ibairantz handitzea. Era berean, espazio hauetan minimoan mantenduko dira landabideak finkatzeko lanak edota landa lurtean tarteeak eraikitzekeo jarduerak.

– Afekzioak ezinbestekoak direnean, eraginak ahalik eta gehien murriztekeo prebentzio neurriak hartuko dira, eta dagozkion neurri zuzentzaileak, eta, hala dagokionean, konpentsazio neurriak ezarriko. Kasu guztietan, espazio horien organo kudeatzaileek ezarritakoari jarraitu beharko zaio.

– Natura 2000 Sareko espazioei eragiten dieten tarteeak egitekeo proiektuak Eusko Jaurlaritzaren Biodibertsitateerako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzara igorri beharko dira bere garaian, honek, Natura 2000 Sarearen behatokia izaki, balora dezan proiektu horiei ebaluazio egoki bat egin behar ote zaien, Habitategi buruzko 92/43/EEE Zuzentarauaren 6.3 artikuluko xedapenekin bat betiere.

– Ingurumen Eraginaren Adierazpena idazteko eskudun den ingurumen organoari dagokio soilik proiektuek ingurumen eraginaren ebaluazioa bete behar duten zehaztea.

#### 6.3.4.– Konektagarritasun ekologikoa.

– Hasiera batean baztertu egiten den arren GBBOSeko proiektuek inpaktu adierazgarririk izan dezaketarik konektagarritasun ekologikoan, behar bezala aztertuko dira lotura korridore nagusiekin, lotura interes berezia duten ibai zatiekin edo arrain-hazkuntzako espezie migratzaileentzat interesgarriak diren ibai zatiekin bat egiten duten tartearak, bereziki beste azpiegitura batzuekin ondorio metagarriak edo sinergikoak izan daitezkeela aurreikusten denean.

– Dagokionean, proiektuak bermatu egingo du konektagarritasun ekologikoa ziurtatzeko neurri egokiak hartzen direla.

#### 6.3.5.– Ibai ibilguak.

– Ibaiertzetan bizikleta bideak eraikitzeko, izan daitezkeen trazadura aukeren analisi zorrotza egin behar da eta, ahal den neurrian, lehendik dauden azpiegiturretan oinarritzeko ahalegina.

– Aukeren azterketetan lehentasuna emango zaie ibilguetan afekzio erantsirik sortzen ez duten aukerei, eta ibaien konexio izaera mantentzea ahalbidetzen duten neurriak hartuko dira. Ildo honetatik, lehentasuna emango zaie ahal den neurrian ibaiak toki berri batzuetatik zeharkatzea saihesten duten aukerei, eta horrelakorik egin behar izanez gero, ahalik eta biderik perpendikularrena egin beharko da, ibaiari lotutako zuhaitz eta zuhaixka orlari afekziorik eragiteke.

– Proiektuetan saihestu egingo da, behar bezala arrazoituta ezintasunen bat dagoenean izan ezik, 1 km<sup>2</sup> baino gehiagoko arro adarra duten ibai zatien morfologia aldatzea, edo Jabari Publiko Hidraulikoa okupatzea.

– Ahalik eta gehien mugatuko da 1 km<sup>2</sup> baino gutxiagoko arroko errekek aldatzea edo estaltzea, eta egungo baldintzetan uzten saiatu behar da. Emaria desbideratzea aukeratuko da (eta gero naturalizatzea eta berreskuratzea, ingeniariak biologikoko tekniken bidez), estali ordez.

– Ezinbestekoa bada ibai zatiren baten morfologia aldatzea edo JPH okupatzea, eta kontuan izanik agintaritzaren hidrológicoak xedatutakoa, ondoren berreskuratze edo leheneratze lanak egingo dira erasandako eremuan. Beharrezkoa denean, konpentsazio neurriak ere hartuko dira, egoera txarrean dauden beste erreka batzuk berreskuratu edo leheneratzeko.

– Proiektuak bermatuko egingo du obrak egin bitartean beharrezko neurriak jarriko direla solidoak arrastatzea eta horiek ibai sarera iristea ekiditeko edo ahalik eta gutxien gertatzeko; neurri horien artean egongo dira, esaterako, aldatutako azalaren berehalako ereite hidraulikoa, dekantagailuak, iragazkiak edo antzeko egiturak jartzea, etab.

– Proiektuak bermatuko egingo du obrak egin bitartean beharrezko neurriak hartuko direla, olioien, erregaien, hormigoiaren eta abarren bidez ura ez kutsatzeko.

#### 6.3.6.– Itsasertza eta hezeguneak.

– Proiektuek itsasertzeko eta hezeguneetako elementu baliotsuenetan (dagozkien LAPetan definituetan) nahiz itsas-lehorreko jabari publikoan inpaktu txikiena duten alternatibak aukeratuko dituzte.

– Kasu guztietan, LAP horietan jasotako arauak errespetatuko dira, eta gai horretan eskumena duten agintariek xedatutakoa beteko da.

– GBBOSeko proiektuek (bereziki POFSeoek), itsasertzeko eta hezeguneetako elementu baliotsuei ezinbestean eragiten badiete, bat datozen beste azpiegitura proiektu batzuekin koordinatuko dira.

– Dena den, itsasertzeko eta hezeguneetako elementu baliotsu horietan ingurumen ondorio kontrakoak aurreikusten direnean, GBBOSeko proiektuek dagozkien prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak proposatuko dituzte.

– Itsas-lehorreko jabari publikoari edota horren babeseko zorguneari eragiten dioten proiektuek eskumena duen administrazioaren baimena beharko dute, edonola ere.

#### 6.3.7.– Akuiferoak kutsatzeko arriskua.

– Akuiferoak kutsatzeko arrisku handiko edo oso handiko eremuak zeharkatzen dituzten GBBOSeko tartetan, prebentzio neurriak muturrera eramango dira, betiere obrak egin bitartean lurra kutsatzea saihesteko. Arreta berezia jarriko da puntu garbiak eta olioak aldatzeko edo makinei erregaia botatzeko eremuak definitzeko garaian, eta iragazgaizte neurririk zorrotzenak hartu eta jarduera protokoloak zehaztuko dira, ustekabeko isuriak daudenerako.

– Eremu horietan arreta handiz jokatu beharko da eraikitzeke erabiltzen diren materialei, hots, agregakin, zoru eta abarri dagokienez, kalterik egiten ez dutela bermatzeko

#### 6.3.8.– Lehenengo sektorea, nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak eta lurrak.

– GBBOS (bereziki POFs) lehen sektoreak gaur egun erabilera ematen dien pistetatik edo bideetatik planteatzen denean, neurriak hartuko dira erabilera berriak eta lehendik daudenak bategaratzeko.

– Nekazaritza-abeltzaintzako lur gutxien behar duten aukerak hobetsiko dira, bereziki agrologia-erren aldetik ahalmen handiko lurrak direnetan eragin txikiena dutenak.

– GBBOSek (bereziki POFsek) agrologia aldetiko gaitasun handiko lurrei edo nekazaritza eta abeltzaintza ustategi estrategikoei eragiten dienean, neurri zuzentzaile eta konpentsazio neurri egokiak hartuko dira.

– Proiektu bakoitzak lehen sektorean duen inpaktua behar bezala baloratzeko, eta horren ondotik neurri zuzentzaile eta konpentsazio neurri egokiak hartzeko, komeni da kontuan hartzea Nekazaritza eta Basogintza Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planak (behin-behineko Onarpenaren dokumentua, 2010) jasotzen duen Plan, programa eta proiektuen garapenak nekazaritza eta basogintzan eragindako afekzioak ebaluatzeko gida metodologikoa.

#### 6.3.9.– Paisaia.

– GBBOS eraikitzeke proiektuek paisaia babesteko ohiko neurriak izango dituzte: landaretza mantentzea, kultur ondareko elementuak balioztatzea, etab.

– GBBOSen eraikuntza proiektuek jaso egingo dituzte, halaber, eragindako paisaia inpaktuak zuzentzeko neurriak, bereziki proiektuak ukitzen dituen zonak atzera landatzera bideratuak.

#### 6.3.10.– Kultur ondarea.

– Arau orokor moduan, proiektuek ez diete eragingo EAEko kultur ondore katalogatuko elementuei, eta tokiko kultur ondareko elementuei eragitea saihestuko dute.

– GBBOSeko proiektuek (bereziki POFSeokoek) bermatu egingo dute Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean xedatutako babes, zuzenketa eta kontrol neurriak betetzen direla.

– Kultur ondare katalogatuko elementuren bati eragingo zaion salbuespenezko kasuan, Euskal Kultura Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legeak eta agintaritza eskumendunak xedatutako bete beharko da.

– GBBOSren proiektuek 14/2000 Ebazpenak, urtarrilaren 25ekoa (2010eko uztailaren 19an berraztertua), ezarritako «Santiago Bidea»ren babes erregimenarekin bateragarriak izan beharko dute

#### 6.3.11.– Eragozpenak obrak egin bitartean.

– GBBOSeko proiektuetan (bereziki POFSekoetan) bermatu egingo da obrak egiteko unean eragozpenak ahalik eta txikienak izateko neurriak hartzea; horretarako hainbat alderdi landuko dira, esaterako behin-behineko desbideratzeak (seinaleak, zorua behar beste kalitatekoa izatea behin-behineko bidean...), zarata eta dardarak (legeak betetzen dituzten makinak erabiltzea eta mantentze lan zuzenak egitea), hautsa (aldizkako arriskuak, kontuz aritzea zamalanetan), lokatza (kamioien eta makinaren gurrilak garbitzea), metaketen, makinaren eta instalazio osagarrien koka-pena, lanaldiak (gauetz lan egitea saihestuz jendea bizi den eremuetatik gertu), etab

#### 6.3.12.– Baliabide berriztagarrien eta ez-berriztagarrien kontsumoa.

– Proiektuek bizikleta bideak (bereziki POFSeoak) eraikitzeke erabili behar diren materialak aukeratzeko gomendioak jasoko dituzte. Tokiko materialak, berriztagarriak eta ingurumen egiaztagiriak dituztenak lehenetsiko dira.

– Argiei dagokienez, proiektuek kasuan-kasuan zehaztuko dute horien beharra, eta irizpidea izango da ahalik eta gehien mugatzea gauetz argiak dituzten tarteak eremu naturaletan, bereziki fauna interesgarria dutenetan.

– Argia behar dela iritziz gero, GBBLAPek berak ezartzen du instalatzen den argiztapenak bete egin beharko duela argiteria publikoko instalazioetarako Energi Eraginkortasunerako Erregelamendu berria.

– Era berean, ahal den guztietan, aurreikusitako energi gastua konpentsatuko duten ekoizpen elektriko sistemak (adibidez, fotovoltaikoa sortzekoak) ezartzen saiatu behar da

#### 6.3.13.– Hondakinak.

– Proiektuak erredaktatu bitartean, sor daitezkeen hondakinak bereizi egin behar dira, gerora egoki kudeatu ahal izatera begira.

– Obra hondakinak Hondakinei buruzko 10/1998 Legean, apirilaren 21ekoan, xedatutakoaren eta estatuko eta autonomia erkidegoko beste xedapen batzuen arabera tratatuko dira.

– Proiektuek neurriak ezarriko dituzte sortzen dituzten beste hondakin batzuen kudeaketa ego-kia bermatzeko, makineriak sortzen dituen kasuan bereziki. Puntu garbiek eta olio aldatzeko eta erregaiak jartzeko eremuek izan beharreko ezaugarriak ere aurreikusiko dira.

#### 6.3.14.– Lurren balantzea.

– GBBOSeko proiektuak (bereziki POFSeoak) lurra konpentsatzen eta soberakinen eta mai-legu materialen gutxieneko bolumena sortzen ahaleginduko dira. Ahal denean, GBBOSeko beste

proiektu batzuekin koordinatuko dira, edo gertuko beste proiektu batzuekin (bide proiektuekin, hiri-gintzakoekin), lurrak elkarren artean konpentsatzeko.

– Proiektuek tarte bakoitzeko lur soberakinen bolumena zenbatu eta karakterizatuko dute, baita haien tratamendua, erabilera edo eramango diren lekua zehaztu ere, gai horri buruzko legezko xedapenetan, esaterako otsailaren 24ko 43/2009 Dekretuak, hondakinak zabortegian utzita edo betelanak egiteko erabilita ezabatzea arautzen duenak, adierazitakoaren arabera.

– Otsailaren 1eko 105/2008 Errege Dekretua (kudeatze eta eraiste hondakinak ekoizteari eta kudeatzeari buruzkoa) betez, Errege Dekretuan zehaztutako azterketa egingo da.

– Maileguko materialek dagozkien berariazko azterketetan ezarritako zehaztasun geoteknikoak bete beharko dituzte, baita lurzoruen kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko 2005eko otsailaren 4ko 1. Legearen 1. eranskineko VIE-A balioak ere. Maileguko materialen sorburuak honakoak izan daitezke: obrako bertako edo legez baimendutako beste obra batzuetako hondeaketak; legez baimendutako ustiatzeetatik ateratako agregakin naturalak; eraikuntza eta eraiste hondakinen balorizaziotik ateratako bigarren mailako agregakinak; beste asimilagarri batzuk, esaterako, altzairuaren ekoizpenetik ateratako zepa beltzak, 34/2003 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

6.3.15.– Kutsatuta egon daitezkeen lurrak.

– GBBLAP izapidetzeko garaian, lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legean xedatutako aginduak beteko dira.

– Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen inbentarioan sartutako lursailak zeharkatzen dituzten tarteek (IIT honetako ingurumen baldintzatzaileen planoetan kartografiatuta daude) lurzorua kalitatearen deklarazioa lortuko dute, Lege horretan xedatutakoaren arabera. Horretarako, beharrezkoak diren azterketak, proiektuak eta jarduerak egingo dira.

– Obrak egitean aurrez identifikatu gabeko lurzoru kutsatuak aurkitzen badira, 1/2005 Legean xedatutakoari jarraituko zaio.

6.3.16.– Uholde arriskuak.

– Onargarrizat hartzen bada ere bizikleta bideak uholde arriskua dagoen eremuetan kokatzea, ahalegina egingo da trazadurak ez dezan zeharkatu 10 urte baino gutxiagoko errepika-denborako eremurik eta, ahal denean, ezta 100 urte baino gutxiagokorik ere.

– Proiektuek ez dute proposatuko uholde arriskuak murrizteko bideratze eta kanalizaziorik; hala ere, agintaritza hidraulikoaren baimenez egindako beste bideratze batzuk baliatu ahal izango dira.

– Bizikleta bideen trazadura 100 urte baino gutxiagoko errepika-denborako uholde arriskuko zonetatik igarotzen denean, dagozkion abisu eta alarma sistemak ezarriko dira, eta agintaritza hidraulikoak onartu egin beharko ditu.

6.3.17.– Arrisku teknologikoak.

– Tarteren bat merkantzia arriskutsuen arriskuagatik edo Seveso araudiko industriengatik arriskuan dauden bideen eragin eremu batetik igarotzen denean, dagokion udalari jakinaraziko zaio, udaleko larrialdi plana eguneratu dezan.

#### 6.3.18.– Zarata.

– Zaratari dagokionez autonomia erkidegoaren mailako araudirik garatzen bada (estatuko araudia garatzeko), eta horretan bizikleta bideei buruzko berariazko zehaztapenik jasotzen bada, araudian xedatutakoa bete beharko da.

– Definizio zehatzik ez dagoen bitartean, proiektuek aztertu egingo dute iturri igorle garrantzitsuetatik (errepide, autobide edo trenbideetatik) gertu igarotzen diren bizikleta bideetan, eta bereziki POFsekoetan, soinu-erosotasun egokia bermatzeko neurri zuzentzaileak (lurrezko dikeak, zarataren aurkako panelak, etab.) ezartzeko aukera. Neurri horiek azpiegitura horietan eskumen duten erakundeekin batera hartuko dira.

#### 6.3.19.– Arrisku geoteknikoak.

– Eraikuntza proiektuek azterketa geoteknikoak izango dituzte ezinbestean.

– Eta azterketa geotekniko horietako gomendioen arabera egingo dira obrak.

#### 6.4.– Ustiatze fasean prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak definitzeko irizpideak.

GBBOSen Kontserbazio Planak prebentzio neurri eta neurri zuzentzaile batzuk izango ditu aurreikusitako ingurumen inpaktuak ekiditeko edo mugatzeko. Neurri horietarako irizpideak hurrengo epigrafeetan garatzen dira. GBBOSen Kontserbazio Planeko neurri horiek guztiak definitu eta aplikatzeko, praktika onen eskuliburu bat egingo da, plan honetako lanak egiteko arduradunek ulertzeko modukoa.

Ondoren, praktika onen eskuliburu horretan jasotzeko prebentzio neurri eta neurri zuzentzaile batzuk proposatzen dira:

##### 6.4.1.– Biodibertsitatearekin zerikusia duten neurriak (fauna eta landaretza).

– GBBOS guztian, belar-sastrakak garbitzeko jardueretan landaretza interesgarriari eragitea ekidindo da, eta arreta berezia jarriko da espazio babestuekin edo asimilagarrieekin bat datozen tarteetan: EAEko NEBen sarean (Parke Naturalak eta Biotopoak), Natura 2000 Sareko espazioetan, Itsasertzeko eta Hezeguneetako LAPetan sartutako itsasertzeko eta estuarioetako espazioetan,...

– Landatze edo ereite berriak egin behar direnean, IIT honen 6.3.1 puntuan adierazitako irizpideak hartuko dira kontuan.

– Mantentze jardueretarako, beharrezko neurriak hartuko dira landare espezie inbaditzaileak ez sartzeko (makina eta ekipoetatik gerta daitezke transmisioak, lur kutsatuak zabaltzean, etab.). Neurri horiek arreta bereziz ezarriko dira aurreko puntuan aipatutako espazio babestu edo asimilagarrietan.

– Babes kategoria handienean katalogatutako faunarentzako interes bereziko eremuekin bat datozen tarteak dagozkien gomendioekin identifikatu eta adieraziko dira, erabiltzaileek populazio horiei ez eragiteko.

– Tarte horietan, azpiegiturak berrikusi egingo dira, fauna babestuaren populazioetan eragin negatiborik –bereziki argiztapen eta itxiturengatik– izan ote daitekeen aztertzeko.

#### 6.4.2.– Hondakinekin zerikusia duten neurriak.

– Bideen erabiltzaileek sortzen dituzten hondakinei dagokienez, oso eremu zehatzetan izan ezik ez da proposatzen zakarrontzirik jartzea. Beraz, kanpainak egin eta seinaleak jarriko dira bideen erabiltzaileek hondakinik bota ez eta, sortuz gero, etxera eraman ditzaten.

– Dena den, Foru Aldundiak aldizkako garbiketa zerbitzu bat du kontratatuta, GBBOFSen metatutako hondakinak jasotzeko. Komeni da udalek dagozkien tarteetan antzeko zerbeit egitea.

– Mantentze lanetan sortutako hondakinak (lurrak, eraistek, makinen hondakinak, olioak edo erregaiak, akatsak dituzten seinaleak edo altzariak, etab.) behar bezala tratatuko dira indarrean dagoen legeriaren arabera, 6.3.13 atalean adierazitako ildoei jarraiki.

#### 6.4.3.– Ustekabeko isuriak mugatzeko neurriak.

– Kontserbazio lanak egitean, akuiferoak kutsatzeko arrisku handiko eremuetan sare hidrografiakoari edo lurpeko urei nabarmen eragin diezaieketen jardueretako ustekabeko isuriak (hormigoia, olioak, erregaiak, etab.) ekiditeko neurri egokiak aplikatuko dira. Horretarako, IIT honetako 6.3.5, 6.3.7 eta 6.3.13 ataletan jasotako gomendioei jarraituko zaie.

#### 6.4.4.– Energi kontsumoa murrizteko neurriak.

– GBBLAPeko argiztapenak eragiten duen energi kontsumoari dagokionez, 6.3.12 atalean aipatu den moduan proiektu berriek (eta orain arte baita burututako proiektuek ere neurri handi batean) ziurtatu egin beharko dute instalatzen den argiteriak betetzen duela Energi Eraginkortasunerako Erregelamendu berriak herri argiteriako instalazioetarako ezartzen duena. Ustiatze fasean, tarte guztiak aztertuko dira, bai Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarekoak bai Burututako Sarekoak, puntu horri buruzko neurri berriak sartzeko, bizikleta bideen sarearen kontsumo elektrikoa ahalik eta gehien murriztera begira betiere.

#### 6.4.5.– Baliabide kontsumoa murrizteko neurriak.

– Bide zoruak berriztatu eta egoera txarrean dauden tarteak konpontzeari dagokionez, maileguko materialek bete egingo dituzte 6.3.14 atalean adierazitako baldintzak.

– Beste material batzuk erabiltzeari dagokionez, tokiko materialak, material berriztagarriak eta ingurumen egiaztagiriak dituztenak erabiltzea lehenetsiko da, 6.3.12 atalean adierazten den moduan.

#### 6.5.– Sustatze fasean prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak definitzeko irizpideak.

Bizikleta bideen sustapenaren arloan garatzen diren jardueren izaera eta ezaugarriak askotarikoak izan daitezkeela kontuan harturik, zaila da horren inguruko prebentzio neurririk edo neurri zuzentzailerik finkatzea.

Edonola ere, beharrezko ikusten da Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen dituen bizikletaren sustapenerako programen diseinua iraunkortasun irizpideen ildotik jorratzea, batez ere baliabide kontsumoari eta hondakin sorrerari dagokienez.

#### 6.6.– Hurrengo ingurumen ebaluazioetarako irizpideak.

LAP honen aldaketak eta berrikustek planen eta programen ingurumen ebaluazioaren mende daude, gai horri buruz indarrean dagoen legeriak, estatuko 9/2006 Legeak eta EAeko 3/1998 Legeak (183/2003 Dekretua), adierazten duen moduan.



Proiektuen ingurumen inpaktuen arloko legeria (1/2008 LED eta EAeko 3/1998 Legea) aztertze-tik ondorioztatzen denez, bizikleta bideen proiektuak ez daude ingurumen inpaktuen ebaluazioaren mende. Hala ere, espazio edo leku sentiberei, naturgune babestu, Natura 2000 Sare edo, bestek beste, kultur ondareko elementuei eragiten dieten proiektuak izapidetzean, dagokion ingurumen erakundeari kontsultatuko zaio, kasuz kasu, hark erabaki dezan proiektuak ingurumen inpaktua-ren ebaluazioaren prozedura behar duen edo ez.

#### 6.7.– Planaren jarraipenerako adierazleen definizioa.

GBBLAPen jasotako jarduera proposamena ez da bizikleta bideen oinarrizko sare bat egitera mugatzen. Horrez gain, bide horiek kontserbatzeko jarduerak ere jasotzen ditu, bizikleta bideak sustatzeko jarduera programa oso batekin batera.

Testuinguru honetan, planaren jarraipenak hainbat eskala edo maila ditu, hala nola:

- Planeko helburuen lortze mailaren jarraipena.
- GBBOS gauzatzeko lanen jarraipena.
- GBBOSen ebaluazio eta jarraipena kudeatze eta ustiatze fasean.

GBBLAPeko «A. Memoria» dokumentuak GBBLAPen jarraipenerako adierazleak definitzen ditu, Planaren beraren zehaztapenen jarraipen eta ebaluaziorako zein horiek hurrengo berrikus-pena arteko epe planifikatuan lortzen duten betetze maila neurtzeko.

Era berean, aipatu dokumentuak adierazten du ezen proposatzen den adierazle sistema Gipuz-koako Bizikletaren Estrategiaren esparruan ezartzen diren bestelako adierazleen osagarria izango dela.

Testuinguru honetan, GBBLAPen proposatzen diren jarraipen adierazleek erantzun egiten diete proposatzen den antolamenduaren funtsezko bi alderdiri, hots:

- Proposatutako jardueren betetze mailari.
- Jarduerak Planeko helburuekiko duten eragin mailari.

Eta kontuan harturik LAPek berak jasotzen duela Planaren jarraipena egiteko bere adierazle sistema, atal honetan adierazle sorta bat proposatzen da, Planeko ingurumen alderdien jarraipena egitearren Oinarrizko Foru Sareari dagokionez.

Adierazleen kalkuluen aldizkakotasuna urtekoa edo bi urtekoa izan daiteke; edonola ere, kal-kulu bat egin beharko da Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea burutzeko jarduerak programatu diren bi laurtekoetako bakoitzaren amaieran.

#### 1.– Planaren ingurumen ondorio positiboaren jarraipenerako adierazleak.

– Ibilgailu pribatuko erabiltzaile erakarriak: ibilgailu pribatua erabiltzetik datozen bizikleta erabil-tzaileen hiriarteko joan-etorriak (joan-etorri kopurua/urte).

- CO<sub>2</sub> emisioen murrizketa (tona/urte).

2.– Lanen ingurumen inpaktuen eta prebentzio, babes eta konpentsazio neurrien betetze mailaren jarraipenerako adierazleak

- Obrek ukitutako Batasunaren intereseko habitaten azalera (m<sup>2</sup>/urte).
- POFs eraikitze kontsumitutako landa lurra (m<sup>2</sup>/urte).

– Obretan ingurumena leheneratzeko jardueretarako bideratutako aurrekontua (urtean gastatutako aurrekontu guztiaren %).

3.– Kudeaketa eta ustiatze faseko adierazleak.

3.1.– Ingurumen arriskuen ondorioen jarraipenerako adierazleak.

– Ibilbidea neurri batean edo erabat uholde episodioen eraginpean dagoen egun kopurua (egun/urte), ibilbideko eta urteko.

– Garraio azpiegituren zarata zorgunearen barnean dagoen ibilbideko tartearen luzera (m).

3.2.– Bizikleta bideen kontserbazio eta mantentze lanen jarraipenerako adierazleak.

– Kontserbazio lanetan sortutako hondakinak (kg/urte).

– Kontserbazio lanetan sortutako hondakin arriskutsuak (kg/urte).

– BOFSeko bizikleta bideak argiztatzeko energi kontsumoa (kWh/urte).

– Ustekabez izandako ibai ibilguetarako isurketak (isurketa kop./urte).

– Ibilgailuek harrapatutako fauna edo basabereak tartean diren istripuen erregistroa (gertakari kop./urte).

Edonola ere, azpimarratu behar da ezen Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2007ko urteaz geroztik, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarearen Behatokia duela, eta honexen ardurako jarraipen eta kontrol eginkizunen barnean sartzen direla ondoko alderdiak:

– Bizikletaren erabileraren ebaluazioa: erabiltzaile kopurua, modalitate banaketa eta bidaiatzeko arrazoiak.

– Bizikletan ibiltzeko baldintzen ebaluazioa.

– Bizikleta bideen irisgarritasun, konektagarritasun eta ekintza-erradioaren ebaluazioa.

– Udal mailako jardueretik koordinazioa, bizikletaren eta oinezkoentzako bideen eta bizikleta bideen arloan.

Izan ere, GBBLAPen dauden jarduerak garatzen diren eta beharrezko tresnak eskura dauden neurrian, Behatokiaren ardura izango da, neurri handi batean, Planaren jarraipena. Eta Planaren ingurumen jarraipena egiteko atal honetan proposatzen diren adierazleen kalkulua Behatokiak egitea proposatzen da. Dena den, GFAk berak baloratu beharko du aukera hori.

## 7. KAPITULUA

### ZAINTZE ETA IKUSKATZE PROGRAMA.

7.1.– Ingurumen ikuskapenerako programaren helburuak.

GBBLAPen garapenarekin aurreikusten diren ingurumen inpaktuekin eta horiek arintzeko proposatzen diren prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurriekin bat, atal honetan deskribatu egiten da planaren ingurumen ondorioen jarraipenerako diseinatu den Ikuskatze Programa. Ikuskatze Programaren helburuak honakoak dira:

– LAPen ezarritako ingurumen helburuen betetze maila ebaluatzea.

- Planaren ingurumen ondorioen jarraipena.
- Prebentzio eta zuzentze zehaztapen eta neurrien betetze maila ebaluatzea.
- Aurreikusi gabeko ondorio kaltegarriak identifikatzea, organo sustatzaileak neurri zuzentzaile egokiak hartu ahal izan ditzan.

GBBLAPek hainbat tresna definitzen ditu proposatzen dituen jardueren garapen eta jarraipenerako. Tresna horietako batzuek jarraipen eginkizuna dute argi eta garbi, eta LAPen beraren jarraipen mekanismoak dira berez.

LAPek ezartzen dituen jarduteko tresnak hainbat bloketan biltzen dira:

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen eraikuntza eta kudeaketari lotutako tresna zuzenak.

- Bizikleta bideen proiektzio, ingurumen kontrol, herritarren partaidetza eta ukituekiko harremanak.

- Bizikleta bideak planifikatzeko eta proiektatzeko gomendio teknikoak (Gipuzkoako Bizikleta Bideen Eskuliburua).

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Foru Sarearen Behatokia.

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Sarearen katalogoa.

- Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarearen artapen plana.

- «Gipuzkoako Bidegorriak» izena.

- Tresna osagarriak, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Oinarrizko Sarearen kudeaketari zorrotz lotu gabeak.

- Gipuzkoako Bizikletaren Estrategia.

- Gipuzkoako Bizikletaren Kontseilua.

- Afekzio sektorialari buruzko txostena.

- Bizikletaren webgunea, Gipuzkoako bizikleta bideen bistaratzaila eta beste zenbait sustapen ekintza.

- GBBLAPen jarraipenerako adierazleak.

- Betetze mailaren adierazleak.

- Burututako jardueren eragin mailaren adierazleak.

LAPen garapenaren gaineko jarraipen lan nagusia Gipuzkoako Bizikletaren Behatokiaren zein Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluaren ardura eta eginkizuna izango da.

Atal honetan garatzen den Ikuskatze Programa ahal den neurrian aipatu tresnak erabiliz plan-teatzen da. Programa bera planaren ingurumen ondorioen jarraipen eta kontrolera mugatzen da, LAPek berak behar adina mekanismo proposatzen ditu-eta planaren beraren garapenaren jarraipen egokia ziurtatzeko. Beraz, ahal izan den neurrian ahalegina egin da ingurumen zaintzarako plan hau GBBLAPek proposatzen duen jarraipen programarekin berarekin koordinatzeko, betiere ingurumen aldagaia txertatzearen plan honen garapen faseetan zeharreko jarraipen jardueretan.

7.2.– Jarraipenaren helburu diren sistemen, alderdien edo aldagaien identifikazioa.

GBBLAPen ingurumen jarraipenak hainbat kontrol jarduera garatzea eskatuko du, planaren unean uneko garapen fasearen arabera.

Ezarri diren eta jarraipena izan behar duten atalak hauek dira:

- LAPeko helburuen ingurumen ondorioen jarraipena.
- Gauzatze faseko jarraipena: banakako eraikuntza proiektuak ikuskatzea eta obren gaineko ingurumen jarraipena.
- Kudeatze eta ustiatze faseko jarraipena.
- Bizikleta bideak sustatzeko jardueren jarraipena.

Jarraipena Gipuzkoako Foru Aldundiak egin beharko du, bizikleta bideen arloan eskumena duen departamentuaren bitartez. Foru Aldundiak berak aztertuko du zer eginkizun garatuko dituen Gipuzkoako Bizikleta Bideen Behatokiak, edo guztiak garatuko dituen.

7.3.– Planaren helburuen ingurumen ondorioen jarraipena.

Planaren helburuen ingurumen ondorioen kontrolaren xedea GBBLAPek jasotzen dituen ingurumen helburuen eraginkortasun maila analizatzea da; helburu horiek IIT honetako 5.1 atalean adierazitakoak dira.

Kasu honetan, helburuak ikuskatzeko programa ondorio horien aldizkako kontrol batean oinarrituko da, dokumentu honetako 6.7 atalean adierazten diren jarraipen adierazleen kalkulura joz horretarako.

Foru bizikleta bideen plangintza eta kudeaketaren ardura duen organoak kalkulatu egin beharko ditu aipatu adierazleak, urtean edo bi urtean behin, planaren ingurumen ondorioek POFs garatu ahala duten eboluzioa aztertzeko. Gainera, emaitza horiek urteko edo urte biko txosten batean jaso beharko dira. Txostenak jendearen eskura egon beharko du, web korporatiboaren bidez ahal delarik.

Bizikleta bideen arloan eskumena duen Departamentuak aztertu egin beharko du jarraipen lan horiek Gipuzkoako Bizikleta Bideen Behatokiari berari atxikitzea komeni den; hala eginez gero, adierazle horiek jaso ahal izango dira Behatokiak prestatzen duen urteko ebaluazio txostenean.

7.4.– Planaren gauzatze fasearen jarraipena.

GBBLAPi lotutako inpaktu negatibo nagusiak obra fasean izango direla iritzita, IIT honetako 6. kapituluaren proposatzen diren neurrietako asko eta asko proiektatzen diren bizikleta bide tarte berriak eraikitzeko obretan aplikatuko dira.

Dena den, eta kontuan harturik LAPen jasotako proposamenek plangintzaren fase honetan duten xehetasun maila, zaila da IIT honetatik obren gaineko ingurumen zaintza eraginkorra ziurtatzeko zaintza programa bat definitzea. Izan ere, programa horrek egokitu egin beharko du, kasuan-kasuan, lurraldearen ezaugarrietara eta aurreikusitako jarduera tipologietara.

Interesgarri deritzogu eraikuntza proiektuek jaso beharko duten edukiaren lerro nagusiak definitzeari eta oinarritzko jarraipen metodologia komun bat prestatzeari, betiere proiektu bakoitzaren alderdi partikularren gaineko jarraipena egin beharko dela ahazteke.

Testuinguru honetan, ingurumen jarraipena, planaren gauzatze fasean, hiru eremutan garatu beharko da:

- Aurretiazko banakako proiektuak edota eraikuntza proiektuak ikuskatzea.
- Ingurumen inpaktuari buruzko azterketak ikuskatzea.
- Plana gauzatzearen ingurumen ondorioen jarraipen orokorra.

#### 7.4.1.– Aurretiazko proiektuak edota eraikuntza proiektuak ikuskatzea.

GBBLAPek bere egiten dituen ingurumen irizpide eta helburuekin bat, bizikleta bide berriak eraikitze lanen beren aurretik beharrezko ikusten da Planifikatutako Oinarrizko Foru Sarea garatzeko proiektuen gaineko ingurumen kontrola egitea, bai aurretiazko proiektuen kasuan (aukerei buruzko azterketak, trazadura proiektuak) bai eraikuntza proiektuen kasuan.

Ikuskatze horren helburu nagusia zera da, POFS osatzen duten tarte berriak eraikitze azkean egiten diren aukerek, irizpide anitzeko analisi baten barnean, ingurumen aldagaia ere baloratu dutela ziurtatzea; eta, ahal den neurrian, ingurumenaren aldetik egokiena den aukera egin dela egiaztatzea halaber. Are gehiago, egiaztatu egin beharko da proiektu horietan jasotzen diren jarduerak ingurumenaren gaineko afekzio bereziki adierazgarriak ez dakartela.

Beraz, garapen proiektuen ingurumen jarraipenak ziurtatu egin beharko du eraikuntza proiektua erredaktatzeko jorratzen diren diseinu irizpideen artean ingurumen irizpidea ere badagoela.

Izan ere, ingurumen aldagaia txertatuta dago jada GBBLAPek berak bizikleta bideen proiektiorako ezartzen duen diseinuan, hain zuzen ere Planeko 'A. Memoria' dokumentuko 5.4.1.1 Bizikleta bideen proiektio, ingurumen kontrol, herritarren partaidetza eta ukituekiko harremanetarako garapen tresnak atalean zehazten den moduan.

Hala, ingurumen aldagaia bizikleta eta oinezkoentzako bideak proiektatzeko prozesuan sartzea aukeratu du GBBLAPek, horiek definitzeko aurreikusitako faseetako bakoitzean zehazki. Horrela eginez gero, izan ere, saihestu egiten da ingurumenaren gaia eranskin edo proiektuetatik beretatik berezirik dokumentutzat hartzea, lagunduz, aldiz, erabakiak hartzeko prozesuan gai hori txertatzen eta baloratzen.

Informazioa biltzeko hasierako fasetik planteatzen da proiektuen ingurumen mailako egokitzeta proiektuetan beretan sartzea. Eta aukerak aztertzeko faseko irizpide anitzeko analisisian sartu egiten da, halaber, ingurumen aldagaia, eta baita prebentzio, zuzentze eta konpentsazio neurrietarako proposamenak egitea ere detektatzen diren faktore kritikoei dagokienez; definizio teknikoaren fasean, erasandako ingurumena leheneratzeko lanak proiektuetan sartzea ezartzen da.

GBBLAPek ezartzen duenaren arabera, ingurumenarekin lotutako kontuak tratatzean, uneoro jarraituko da derrigorrean bete beharreko ingurumen araudian xedatutakoa, eta, betiere, erabakiak behar bezala oinarriturik hartu ahal izateko behar diren analisiak jasoko dira.

LAPek berak definitzen du proiektuek jaso beharko duten gutxieneko ingurumen edukia; hala, dokumentu horien erredakziorako lagatzen du identifikatzen diren ingurumen inpaktuak arintzera zuzendutako prebentzio neurri eta neurri zuzentzaileen proposamen zehatz eta kasuan kasukoari egokitu bat diseinatzea, eta obren gaineko ingurumen zaintzarako programaren diseinua –honetan sartu ahal izango dira proiektu bakoitzean jarraipen partikularizatua egin beharko zaizkien alderdi bereziak–.

Eta ulertzen da ezen, diseinu horrek benetan bete dezan GBBLAPek ematen dion eginkizuna, edukiaren gaineko kontrola eraman behar dela, hain zuzen GBBLAPek definitzen duen gutxieneko edukia betetzen dela eta IIT honetan –prebentzio neurri eta neurri zuzentzaileei buruzko proposamena diseinatzeko eta ingurumen zaintzarako programa diseinatzeko– adierazitako norabideak jaso direla ziurtatzearen.

Ildo honetatik, alderdi horiek guztiak betetzearen gaineko ikuskatze eginkizuna Gipuzkoako Foru Aldundiak har dezake bere gain, bizikleta bideen plangintza eta kudeaketaren eginkizuna duen Departamentuaren bitartez.

#### 7.4.2.– Ingurumen inpaktuari buruzko azterketak ikuskatzea.

GBBLAPek berak ezartzen duenaren arabera, POFSeko proiektu bat ingurumen inpaktuaren ebaluazio prozedurapean baldin badago, indarrean dagoen legearen arabera, Ingurumen Inpaktuaren Azterketa beharko du, edo, hala badagokio, Ingurumen Inpaktuaren Azterketa Sinplifikatua, antzeko indize batez eta, betiere, egiten den unean indarrean dagoen ingurumen legediari jarraiki

#### 7.4.3.– Plana gauzatzeak dituen ingurumen ondorioen jarraipen orokorra.

Ahal bada urtero edo bi urtean behin, bizikleta bideen organo sustatzaileak zaintza programa guztiak aztertuko ditu, eta txosten labur bat egingo du aurretiazko proiektuak eta trazadura eta eraikuntza proiektuak erredaktatzeko garaian nahiz obren geroko ingurumen zaintzan kontuan izan behar diren jarraibideak eta gomendioak jasoz.

Eta komeni da foru erakundeak bizikleta bideek ingurumenean izan ditzaketen hondar-inpaktuen epe ertain-luzeko jarraipen programa bat ezartzea, betiere dagoeneko eginda dauden eta egiteko dauden proiektuak harturik aintzat; bide batez, prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaile eta konpentsazio neurrien epe ertain-luzeko eraginkortasunaren jarraipena ere egin beharko du. Jarraipen programa hori ustiatze fasean hartutako neurrien kontrol programarekin bateratu daiteke (ikus 7.6. atala).

Osterantzean, GBBLAPen gauzatze lanek sortzen dituzten ingurumen inpaktuen jarraipenerako adierazle batzuk proposatzen dira. IIT honetako 6.7 atalera jo behar da, horri dagokionez proposatzen diren adierazleak kontsultatzeko.

Toki erakundeek ere antzeko jarraipen programak abian jartzea komeni da, betiere Planifikatutako Oinarrizko Udal Sarea egiteko lanetan dituzten eskumenen mailan.

#### 7.5.– Obretako ingurumen zaintzarako planak diseinatzeko irizpideak.

POFSeko bizikleta bideak eraikitzeke proiektuek, ingurumen inpaktuei buruzko azterketen edo ingurumen memorien bidez, obrak zaintzeko programak zehaztuko dituzte. Obrak zaintzeko lan horiek langile propioek edo horretarako kontratatutako langileek egingo dituzte.

Atal honetan, zaintza jarduera orokor batzuk proposatzen dira, POFSeko gauzatze lan guztietan aplikatu daitezkeela irizten zaio eta. Hala eta guztiz, bizikleta bideak eraikitzeke proiektuek, bere ingurumen inpaktuaren azterketen edo ingurumen memorien bidez, eta baldintzatzaile espezifikoaren arabera, hobetu edo aldatu ahal izango dituzte zaintza programa horiek.

Proposatzen diren jarduerak, gainera, obren garapenak uki ditzakeen ingurunekeko elementuen gaineko kontrol espezifikoetan biltzen dira, baina oraindik zehazteko daude obren zaintza planari dagozkion beste alderdi batzuk. Ildo honetatik, foru bizikleta bideen organo sustatzaileak gutxieneko protokolo komun bat zehaztu beharko du zaintza programak garatzeko; horretan, zehaztasun maila handiago batez definitu beharko ditu honakoak:

– Zaintza lanak egiteko pertsonal gaitu mota: tituluak eta gutxienerako esperientzia.

– Zaintza ekintzak: aldizkako bisitak (gomendatutako gutxienerako maiztasuna), programatu gabeko bisitak (zer arrazoiengatik egin behar diren), berariazko kontrolak (fauna, landaretza, uren kalitatea, soinu kalitatea, ingurumen kalitatea, lur kutsatuak, kultur ondarea...).

– Aldizkako txostenak: gomendatutako gutxienerako edukia eta gutxienerako aldizkakotasuna.

– Obra amaierako txostena: gutxienerako edukia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez badu zaintza eginkizunak egiteko langilerik, eta kontratatu egin behar baditu, gomendatzen da langileak edo enpresa arduradunak GFaren beraren mendean egotea hierarkikoki, eta ez obrak egingo dituen enpresa eraikitzailearen mendean.

Foru bizikleta bideen organo sustatzaileak aldizkako zaintza txostenen eta proiektu guztien obra amaierako txostenen erregistroa eramango du; eta jendearen esku egongo dira horiek, ahal bada erakundearen webgunean.

Obretako ingurumen zaintzarako planak, hala dagokionean, ondoko kontrol alderdi eta jarduerak jaso beharko ditu:

1.– Afekzio eremuaren kontrola:

a) Eremu sentiberen babesaren kontrola.

b) Obrako mugen kontrola.

2.– Landaretzaren babesaren kontrola.

3.– Faunaren babesaren kontrola:

a) Jakinarazpen kontrola.

b) Fauna babesteko neurrien kontrola.

c) Arrain-fauna babesteko jardueren kontrola.

4.– Landare lurraren kudeaketa.

5.– Lur mugimenduen eta soberakinen kontrola.

6.– Hondakin arriskutsuen kudeaketaren kontrola.

7.– Lur gaineko uren babesaren kontrola:

a) Lur gaineko uren kalitatearen kontrola.

b) Ibilguen babesaren kontrola.

8.– Arkeologi ondarearen babesaren kontrola.

9.– Airearen kalitatearen kontrola: esekiduran diren partikulen eta galtzadako aldizkako arriskuen kontrola.

10.– Herritarrei eragin afekzioaren kontrola.

11.– Lur kutsatuen kudeaketa zuzenaren kontrola.

12.– Ingurumena eta paisaia leheneratzea: birlandatzeen kontrola (berme epea barne).

## 7.6.– Kudeaketa eta ustiapen fasearen jarraipena.

IIT honen kapituluetan zehar azaldutakoarekin bat, bideen ustiatze fasean aurreikusten diren ingurumen ondorio nagusiak positiboak dira, Gipuzkoan bizikletaren erabilerak izango duen gora-kadari lotuak. Osterantzean, ingurumen inpaktu negatiboak aurreikusten dira, Bizikleta Bideen Oinarrizko Foru Sarea kontserbatzeko jardueren eraginez. Era berean, bizikleta bideen erabilerak eta ustiapenak berak inpaktu sorta bat dakar berekin, hala nola energi kontsumoa eta hondakin sorrera.

Testuinguru honetan, planak ustiatze fasean dituen ingurumen ondorioen jarraipena garatu egin beharko da Sarearen kudeaketa eta ustiapenean ezarritako alderdiei dagokienez.

Ustiapen faseko ingurumen zaintzarako jardueren koordinazio, kudeaketa eta kontrol orokorreko lanak bizikleta bideen ardura duen foru organoak berak har ditzake bere gain. Irizpideak finkatzean eta adierazleak kalkulatzeko oinarritutako ingurumen kontrol bat proposatzen da; horrenbestez, ez da ikusten tokian bertan ingurumen kontrolik beharko denik, gauzatze fasearen kasuan horrelakoak behar badira ere.

GFAk ezin badu bere gain hartu, zaintza lan hori propio kontratatutako pertsonalak egin ahal izango du. Horretarako, GFAk definitu egin beharko ditu IIT honetan garatzeko dauden alderdi batzuk, betiere ustiapen faseko ingurumen zaintzaren lanak hasi aurretik:

- Zaintza lanak egiteko pertsonal gaitu mota: tituluak eta gutxieneko esperientzia.
- Zaintza ekintzak: adierazleak kalkulatzeko maiztasuna, berariazko kontrolak (hondakinak, energi kontsumoa, etab.), adierazleak kalkulatzeko beharrezko parametroen kontrola...
- Aldizkako txostenak.
- Urteko laburpena: edukia.

Gipuzkoako Foru Aldundiak ez badu ustiatze fasean zaintza eginkizunak betetzeko langilerik, eta kontratatu egin behar baditu, gomendatzen da langileak edo enpresa arduradunak GFAREN beraren mendean egotea hierarkikoki, eta ez obrak egiteko esleipendun ateratako enpresaren mendean.

Foru bizikleta bideen kudeaketaren ardura duen organoak kudeaketa eta ustiapen faseei dagozkien zaintza txostenen erregistro bat eramango du, eta horretan jasotzen diren ingurumen ondorioen jarraipen eta balorazioko txostenak egingo ditu, urtean edo bi urtean behin. Txosten horiek guztiak eskuragarri egongo dira jendearentzat, web korporatiboan ahal bada.

Komeni da ustiatze fasean ezarritako prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaile eta konpentsazio neurrien epe ertain-luzeko jarraipen plana ezartzea foru erakundeak. Jarraipen programa hori eraikitze fasean hartutako neurriak jarraitzeko programarekin bateratu daiteke, hala egokituz gero (ikus 7.4. atala).

Toki erakundeek ere antzeko jarraipen programak abian jartzea komeni da, betiere Planifikatutako Oinarrizko Udal Sarea ustiatzeko lanetan dituzten eskumenen mailan.

### 7.6.1.– Kudeaketa eta ustiatze faseko ingurumen inpaktuen ingurumen jarraipena.

Interesgarri deritzogu IIT honetan ustiatze faserako detektatutako ingurumen inpaktuen zein horietarako ezarritako prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaileen aplikazio zuzenaren gaineko kontrola eramateari.



Kasu honetan, ustiatze faseko ingurumen jarraipenak eboluzioa aztertu beharko du, hainbat alderdi harturik kontuan horretarako:

– Ingurumen arriskuak: definitutako ingurumen arriskuei lotutako gertakarien gertatze kontrola, behar izanez gero dagozkion neurriak hartu ahal izateko.

– Bizikleta bideak kontserbatzeko eta mantentzeko lanek sortutako ingurumen inpaktuak: mantentze lanei lotutako inpaktuen gaineko ingurumen kontrola (hondakin sorrera, hondakin arriskutsuak, ustekabeko isuriak, energi kontsumoa, erabiltzaileak eta etxeko animaliak igarotzeagatik faunari eragin kalteak...).

Kasu guztiotan, ingurumen ikuskaritza horri heldu ahal izatera begira ustiatze faseko ingurumen jarraipenerako adierazle sistema bat definitzeari iritzi zaio eraginkorren. Foru bizikleta bideen ardura duen organoak adierazle horien kalkulu bat egin beharko du, urtean edo bi urtean behin.

Ateratzen diren datuak urteko edo bi urtean behingo memoria batean jasotzea gomendatzen da; horretan, izan ere, aztertu egingo da adierazle horien eboluzioa, eta beharrezko neurri osagarriak ezarri ahal izango dira gainera, ateratzen diren emaitzen arabera neurri horiek beharrezkoak badira. Txosten horiek guztiek eskuragarri egon beharko dute jendearentzat, web korporatiboan ahal bada.

Osterantzean, GFAk aztertu egin beharko du komeni ote den adierazle eta datu horiek Gipuzkoako Bizikleta Bideen Behatokiak argitaratzen duen urteko memorian jasotzea.

Oinarrizko Foru Sareko kontserbazio lanen kasuan, GBBLAPek berak horien kontrolerako lanabes eraginkor bat definitzen du, Kontserbazio Plan bat erredaktatzea alegia. GBBLAPeko «A. Memoria» dokumentuan definitzen denarekin bat, Kontserbazio Planak jarraitu egingo ditu IIT honetako 6.4 atalean jasotzen diren «Ustiatze fasean prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak definitzeko irizpideak».

Foru bizikleta bideen ardura duen organoak ziurtatu egin beharko du aipatu Kontserbazio Planean irizpide horiek jasotzen direla; horretarako, interesgarria izango litzateke bideak kontserbatzeko jardueretara zuzendutako «Ingurumen Praktika Egokien Gida» bat erredaktatzea.

Kasu honetan, GFAk ziurtatu egin beharko du gida hori prestatzeko unean kontuan hartzen direla IIT honetan adierazten diren irizpideak, eta, ondoren ere, jasotzen diren zehaztapenak praktikan gauzatzen direla bizikleta bideak artatzeko lanetan zehar. GFAk jarduera estrategia eta protokolo bat diseinatu beharko du, azken baldintza hau betetzen dela ziurtatzeko. Interesgarria izan liteke bideak mantentzeko lanak esleitzeko baldintzen agirian jasotzea «gida» horretan jasotakoa bete beharra, lan horiek GFAtik kanpoko enpresa batekin kontratatzen badira.

#### 7.7.– Sustatze faseko prebentzio neurrien eta neurri zuzentzaileen jarraipena.

Bizikleta sustatzeko jardueren ingurumen ondorioen gaineko kontrola bat etorriko da planaren ingurumen ondorioak zaintzeko diseinatzen diren kontrol jarduerekin, kontuan harturik ezen bizikleta bideen erabilera sustatzeko jardueri lotutako ingurumen ondorio adierazgarrienak bizikleta bidezko mugikortasuna areagotzeari lotutakoak izango direla.

Osterantzean, ez da sustatze fasean izan daitezkeen ingurumen inpaktu negatiboak arintzeko berariazko neurri zuzentzaileak proposatu, mota horretako inpaktuak hutsaren hurrengoak izango direla irizten baitzaio; horrenbestez, ez da ikuskatze jarduera apartekorik proposatzen sustatze faseari dagokionez.

Edonola ere, GBBLAPek berak hainbat tresna jasotzen ditu bizikleta sustatzeko programa horiek garatzera begira zein sustatze jarduera horien arrakasta maila kontrolatzera eta jarraitzera begira. Gauzak horrela, ez da beharrik ikusi IIT honetan horren inguruko neurri osagarririk eransteko.

7.8.– Planaren jarraipenaren adierazleetakoko datu kuantitatiboak eta kualitatiboak finkatzea.

Atal honetan finkatu egiten dira GBBLAPen ingurumen ondorioen jarraipenera begira IIT honetako 6.7 atalean proposatzen diren adierazleetarako datu kualitatiboak eta kuantitatiboak, betiere behar besteko informazioa badagoen kasuetarako.

Atal honen helburua, funtsean, adierazle horien erreferentziako datuak finkatzea da, hain zuzen datu horiek erabiliz baloratu ahal izan dadin adierazle horiek GBBLAP garatu ahala duten eboluzioa.

Kasu batzuetan, atal honetan ematen den erreferentziako datua GBBLAPek berak egiten dituen aurreikuspenen arabera da; beraz, adierazle horiek aldian-aldian kalkulatu gero, planaren eboluzioa aztertu ahal izango da, plangintza fase honetan egindako aurreikuspenak betetzeari dagokionez.

1.– Planaren ingurumen ondorioen adierazleak.

1.1.– Ibilgailu pribatua erabiltzetik datozen bizikleta erabiltzaileen hiriarteko joan-etorriak (joan-etorri kopurua/urte).

Erreferentziako datua: bizikleta bidezko hiriarteko 300.000-325.000 joan-etorri.

1.2.– CO<sub>2</sub> emisioen murrizketa (tona/urte).

Erreferentziako datua: 225 tona/urte.

2.– Planaren ingurumen inpaktuen adierazleak: lanen ingurumen inpaktuen eta prebentzio neurrien jarraipenerako adierazleak

2.1.– Obrek ukitutako Batasunaren intereseko habitaten azalera (m<sup>2</sup>/urte).

Erreferentziako datuak: GBBLAPek proposatzen dituen jarduerak iristen duten xehetasun maila (1/10.000 eskala antolamendu planoetan) ez da behar bestekoa LAP egitean ukituko den habitat azaleraren zenbatespena egiteko.

2.2.– POFSe eraikitze kontsumitutako landa lurra (m<sup>2</sup>/urte).

Erreferentziako datua: 15 ha zelaigune berria sortu behar den tartea egiteko.

2.3.– POFSeko obretan ingurumena leheneratzeko jardueretarako bideratutako aurrekontua (urtean gastatutako aurrekontu guztiaren %).

Erreferentziako datua: 1.538.570 euro.

3.– Kudeaketa eta ustiatze faseko adierazleak.

3.1.– Ingurumen arriskuen ondorioen jarraipenerako adierazleak.

3.1.1.– Ibilbidea neurri batean edo erabat uholde episodioen eraginpean dagoen egun kopurua (egun/urte), ibilbideko eta urteko.

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

3.1.2.– Garraio azpiegituren zarata zorguneen barnean dagoen ibilbideko tartearen luzera (m).

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

3.2.– Bizikleta bideen kontserbazio eta mantentze lanen jarraipenerako adierazleak

3.2.1.– Kontserbazio lanetan sortutako hondakinak (kg/urte).

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

3.2.2.– Kontserbazio lanetan sortutako hondakin arriskutsuak (kg/urte).

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

3.2.3.– BOFSeko bizikleta bideak argiztatzeko energi kontsumoa (kWh/urte).

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

3.2.4.– Ustekabez gertatutako ibai ibilguetarako isurketak (isurketa kop./urte).

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

3.2.5.– Ibilgailuek harrapatutako fauna edo basabereak tartean diren istripuen erregistroa (gertakari kop./urte).

Erreferentziako datuak: ez dago honi buruzko erreferentziako daturik.

## 5. KAPITULUA

### PROPOSATUTAKO JARDUERAK, EGINDAKO ALDAKETA

5.2.2.– Lehentasunen esleipena.

I-9 adarreko 9. ibilbidean dagoen 09001F (kodea) tartearen exekuzioa oinarrizko Foru Sarea garatzeko lehenengo laurtekoan sartzea.

#### HERRITAR GUZTIENTZAKO ADIERAZPEN ARGIA ETA ULERGARRIA, GIPUZKOAKO BIZIKLETA BIDEEN LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN INGURUMEN ERAGINAREN BATERAKO EBALUAZIOARI BURUZKOA

2003ko uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuak, ingurumen eraginaren gaineko baterako ebaluazio prozedura arautzen duenak, 14. artikuluan aurreikusitakoarekin bat eginda, Gipuzkoako Batzar Nagusiek herritar guztientzako adierazpen argia eta ulergarria onetsi dute; bertan, labur azaltzen dira nola integratu diren ingurumen alderdiak Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planean (GBBLAP), aintzat hartutako beste aukeren artean zergatik onartu den Plan hori, eta Plana gainbegiratzeko hartutako neurriak zeintzuk diren.

Horiek horrela, ondorengo adierazpena egin da:

Lehenengoa.– GBBLAPan txertatu egin dira bere ingurumen eraginaren baterako ebaluaziotik ondorioztatutako ingurumen alderdiak, kontuan hartu baitira ingurumen organoak ezarritako xedapen guztiak, bai Aurretiazko Txostenean ezarritakoak eta baita Ingurumen Eraginaren Baterako Ebaluazioaren Behin Betiko Txostenean ezarritakoak ere.

Horrela, ingurumen alderdi horiek txertatu direnez, ingurumen eraginaren baterako ebaluazio azterlanak zabaldu eta hobetu egin du bere analisia, aurrerapen agirian jasotakoaren aldean. Azpimarragarriak dira, bere edukiaren barruan, honako alderdi hauek:

– Bizikleta Bideen Lurraldearen Arloko Planaren helburu estrategikoen eta kontuan hartutako alternatiben deskribapena: Eguneratu egin dira, kontuan hartuta ingurumen helburuak eta irizpideak, aurreikusten diren jarduketak, kontuan hartu diren alternatibak eta egin diren parte-hartze publikoko prozesuak. Ingurumen helburu hauek txertatu dira: 1) Hobetzea oinez zein bizikletaz egiten diren joan-etorrien konektibitate, segurtasun eta erosotasun baldintzak, bereziki hiri arteko loturei dagokienez. 2) Garraio motordunen trafikoak sortzen dituen ingurumen inpaktuak –berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak, zarata– eta trafiko horri lotutako energi kontsumoa murrizten laguntzea. 3) Bizikleta bideen oinarrizko sarea ahal den ingurumen inpaktu txikienez egitea.

– Beste plan batzuekiko elkarreraginaren azterketa: Beste plan eta programa batzuekiko elkarre-raginak eguneratu eta zabaldu egin dira, eta aztertu da ea bateragarria den hainbat planekiko, hala nola: ibaien eta erreken ertzak antolatzeako LAP, itsasertza antolatu eta babesteko LAP, baliabi-deak babesteko planak (Aizkorri-Aratzeko natur baliabideak antolatzeako plana edo Deba-Zumaia biotopo babesteko natur baliabideak antolatzeako plana) eta Natura 2000 Sareko kontserbazio bereziko eremuetako kudeaketa planak.

– Ingurunea ibilbidez ibilbide aztertu orde, ingurunearen azterketa orokorra egin da, ingurumen alderdiak kontuan hartuta, eta lurzoruak eta ahalmen agrologikoa bezalako ingurumen alderdiei buruzko informazioa txertatu, eguneratu edo zabaldu da.

– Teknikoki aztertutako alternatibak: Teknikoki bideragarriak diren alternatiben ingurumen azterketa egin da, ingurumenaren gaineko eraginak minimizatu beharra kontuan hartuta. Aztertu diren alternatibak dira: 0 alternatiba edo «esku-hartzerik ez gauzatzea»; sare ereduko alternatibak; eta trazadura alternatibak.

● 0 alternatiba. Bidegorrien sarea ez gauzatzea da. Aukera hori ez dator bat egungo erreali-tatearekin, proposatutako sarearen zati bat eginda baitago jada. Azterketa honek agerian jartzen ditu egungo garraio sistemaren ondoriozko eragin negatiboak eta kanpoko kostuak (kutsadura atmosferikoa eta berotegi efektuko gasak –BEG–, kutsadura akustikoa, auto pilaketak eta kontsumo energetikoa). Alternatiba hau baztertu egiten da, epe ertainera eta luzera iraunkorra ez den garraio eredu bat mantentzea suposatzen baitu.

● Sare ereduko alternatiben ingurumen balorazioak kontuan hartzen ditu GBBLAPek ezarritako lehenetsuneko erabiltzailearen profila eta bizikleta bidearen eredua; horrela, aisialdiko txirrindularia eta hiri barruko edo hiri arteko eguneroko txirrindularia bereizten ditu. GBBLAPek proposatutako sare eredua aukeratu izana justifikatzeko, esaten da eredu horren funtzionalitatea eta irismena handiagoak direla, eta eguneroko joan-etorri ez-motordunen alde egiten duen funtzio aniztasun helburuari erantzuten diola, EAE osorako definitutako ingurumen irizpideekin bat eginez.

● Sarearen trazadura alternatibei dagokienez, bi trazadura aukera aztertu dira: 1) Gipuzkoako Bizikleta Bideen 2002ko Planean jasotakoa, eta 2) izapidetzen ari den GBBLAPen proposatutakoa. Kontuan hartu diren ingurumen baldintzak dira: a) Sarearen funtzionaltasuna (hiriguneen, industrialdeen, ekipamenduen eta gune intermodalen eskari potentzialari ematen zaion erantzuna). b) Ingurumenari dagokionez estrategikoak diren helburuak lortzen laguntzea (motorrik gabeko mugikortasuna areagotzea, atmosferako emisioak murriztea, soinu kalitatea hobetzea). c) Ingurune fisikoaren gaineko eraginak (lurzoru kontsumoa, espazio natural babestuen gaineko eragina, Ingurumenari dagokionez sentikorrek diren guneen gaineko eragina).

– Inpaktuen identifikazioa eta balorazioa: Sakonago aztertu dira GBBLAPen helburuak betetze-tik nahiz eraikuntza, ustiapen eta sustapen jardueretatik eratorritako ingurumen eragin nagusiak.

- Helburuei dagokienez, alderdi hauek identifikatu, balioztatu eta kuantifikatu dira: motorrik gabeko mugikortasuna areagotzea, airearen kalitatea hobetzea, berotegi efektuko gasen (BEG) emisioak murriztea, kalitate akustikoa hobetzea, auto pilaketak murriztea, txirrindularien istripu tasa murriztea eta intermodalitatea areagotzea. Eraikuntza jarduketari dagokienez, zabaldu egin da ingurunearen gaineko inpaktuen identifikazioa eta balioztapena, eta ulertu da gehienak batera-garriak direla. Ondorengo faseetan egingo da balioztapen zehatzagoa.

- Bizikleta bideen kudeaketan eta ustiaketan zehar ingurumenaren gaineko inpaktuak eragin ditzaketen hiru jarduketa arlo identifikatu dira: erabilera, kudeaketa eta artapena. Tamainagatik, ulertu da ez dutela eragin garrantzitsurik izango. Erabilerari dagokionez, ingurumenaren gainean izango duen eragina positiboa izango da, airearen kalitatea eta hiri ingurunea hobetu egingo direlako. Kudeaketari dagokionez - ibilbidez ibilbide aztertu da-, uholde arriskuak, substantzia arriskutsuen garraibideekiko gertutasunaren ondoriozko arriskuak eta hurbileko errepideetako zarata identifikatu dira. Artapenari dagokionez, hauen gaineko inpaktuak aztertu dira: biodibertsitate, hondakinen sorrera, ustekabeko isuriak, energia eta baliabideen kontsumoa eta jarduera ekonomikoen sorrera. Bizikleta bideen sustapen jardueretatik (sentsibilizazioa eta komunikazioa) ondorioztatutako inpaktuak positiboak dira, motorrik gabeko mugikortasuna bultzatzen dutelako.

– Prebentzio eta zuzentze neurriak: Gerora planaren garapen tresnetan landu beharko diren oinarriko neurriak edo irizpideak proposatzen ditu. Ingurumen kontrolerako tresnen arabera, bizikleta bidearen trazadura definitzeko prozesu osoan zehar txertatu behar da ingurumen aldagaia. Planteatzen da, baita ere, alternatibak aztertu behar direla, ingurumenari dagokionez sentikorrek diren aldeetan dagoen oinarriko sare planifikatuaren % 31rako. Azkenik, xedatzen du ingurumen alderdiak kontuan hartu behar direla ondoren garatu behar den Kontserbazio Planean. Era berean, prebentzio neurriak, neurri zuzentzaileak eta konpentsazio neurriak definitzeko irizpideak ezartzen dira, bai aurretiazko proiektuetarako, bai eraikuntza proiektuetarako eta baita ustiapen eta sustapen faseetarako, hainbat ingurumen alderdi kontuan hartuta (landaredia eta fauna; baliabideen kontsumoa, eta abar).

Bigarrena.– Onartutako aukera da GBBLAPek planteatzen duena, funtzionaltasun handiagoa duelako, izan ere, horrek berekin ekarriko du ezarritako ingurumen helburu estrategikoak hobeto lortzea, motorrik gabeko mugikortasunaren hazkundearen, atmosferarako emisioen murrizketaren eta kalitate akustikoaren hobekuntzaren aldetik. Horrela, nahiz eta GBBLAPek 2002ko Planak baino inpaktu handiagoa izan ingurune fisikoaren gainean, inpaktu handiago hori konpentsatu egingo da, azkenean aukeratutako alternatibak irabazia baitakar berekin, mugikortasun iraunkorraren aldetik.

Hirugarrena.– Ingurumen eraginaren jarraipenari eta kontrolari dagokion Gainbegiratze Programak hainbat adierazleren kalkulua dakar berekin. Bestalde, exekuzio fasean planteatzen dira obrako proiektu indibidualen edukiaren beraren gaineko kontrola, eta ingurumen eraginaren azterketak - obretan garatutako zaintza proiektuak ere aztertuz-, aurretiazko proiektuak eta eraikuntza proiektuak idazterakoan, nahiz ondoren obretan egingo diren ingurumen zaintzetan, kontuan hartu beharko diren jarraibideak eta gomendioak laburbilduko dituen txostena egiteko. Obretako zaintza planak diseinatzeke eta, ondoren, kudeaketa eta ustiaketa faseetan jarraipena egiteko hainbat irizpide ere definitzen dira, bideak mantentzeko eta artatzeko lanek eragindako ingurumen inpaktuen eta arriskuen bilakaera aztertuta.